

Programazio didaktikoak prestatzeko gida

OINARRIZKO
HEZKUNTZA: Lehen
Hezkuntza eta
Derrigorrezko Bigarren
Hezkuntza

Programazio didaktikoak prestatzeko gida

OINARRIZKO
HEZKUNTZA: Lehen
Hezkuntza eta
Derrigorrezko Bigarren
Hezkuntza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2017

Edizioa:

Tirada:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
Hezkuntza Saila

Internet:
www.euskadi.net

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimatzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua.
Lege Gordailua: xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx

AURKIBIDEA

	Or.
1. Sarrera	7
2. Zergatik eta zertarako egin programazioa	9
3. Programazio didaktikoa eta hori osatzen duten elementuak	10
3.1. Programazio didaktikoa	11
3.2. Programazio didaktikoaren elementuak	13
3.2.1. Zeharkako eta diziplina barruko oinarrizko gaitasunak	13
3.2.2. Helburuak	15
3.2.3. Integrazio-egoerak	17
3.2.4. Edukiak	20
3.2.5. Ebaluazio-irizpideak eta lorpen-mailaren adierazleak	23
3.2.6. Kalifikazioa	32
3.2.7. Erabaki metodologikoak eta didaktikoak	35
3.2.8. Curriculuma garatzeko materialak eta baliabideak	43
4. Programazio didaktikoaren ebaluazioa	44
4.1. Ikasturteko ebaluazio-emaitzak, arlo edo irakasgaietan	44
4.2. Aldagai metodologikoen koherentzia eta egokitasuna	45
4.3. Ikasgelako eta ikastetxeko giroaren hobekuntzan metodologiak izandako eragina	45
5. Bibliografia	47
6. ERANSKINAK	49
<i>I. Eranskina: Arloaren edo irakasgaiaren urteroko programazio didaktikoa egiteko txantiloia</i>	51
<i>II. Eranskina: Unitate didaktikoa programatzeko txantiloia</i>	55
<i>III. Eranskina: Unitate didaktikoa arazo-egoera batetik abiatuta programatzeko adibideak</i>	56
<i>IV. Eranskina: Programazio didaktikoaren ebaluazioa</i>	62
<i>V. Eranskina: Ikastetxea eta gaitasunen garapena</i>	63

1. Sarrera

Gida hau laguntza modura eskaintzen da Oinarrizko Hezkuntzan programazio didaktikoak egiteko, hots, Lehen Hezkuntzako ikaskuntza-alarren eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasgaien programazio didaktikoetarako.

Heziberri 2020 hezkuntza-eredu pedagogikoaren oinarriak eta abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuko (Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzekoa) araudia biltzen ditu.

Hezkuntza Sailak zera nahi du: gela guztietan ikaskuntza-proposamen jakin batzuk garatzea, zeinak ahalbidetuko duten ikasle bakoitzak ahalik eta gaitasun gehien izan ditzan bere bizitzako alor guztietan (pertsonala, akademikoa, soziala eta profesionala). Ildo horretan, beharrezkoa da irakasleen esperientziaren eta hezkuntzako ikerketen arabera ikasleen ikaskuntza errazteko funtsezkotzat jo diren alderdiak irakasleen lanean txertatzea ikastetxe guztietan.

Hori gerta dadin, ezinbestekoa da ulertzea aldaketaren benetako eragileak irakasleak direla. Beraz, behar-beharrezkoa da ikaste-prozesuak errazten dituzten proposamen didaktikoak garatzen ari diren pertsona horiek bultzatzea eta aintzat hartzea, eta behar den kasu guztietan aldaketa metodologikoak egiten laguntzea, beharrezko babesekin.

Gida honen helburua da interesgunea programazio didaktikoaren elementu bakoitzean jartzea, egungo araudiaren arabera, irakasleei beren irakaskuntza-lana hobetzen jarrai dezaten laguntzeko.

Horretarako, gida honetan, beste atal batzuek gain, arloko edo irakasgaiko programazio didaktikoa osatzen duten elementu guztiak zehaztu ditugu, eta erreferentziazko kontroleko galdera batzuk gehitu ditugu, programazioa egiten duten irakasle-taldeek beren burua ebaluatu ahal izateko, aholkulariek orientabide batzuk edukitzeko, eta kanpoko ebaluazioa egin behar dutenek mekanismo gisa erabiltzeko. Programazio didaktikoa osatzen duten elementuen artean zeharkako eta diziplina barruko gaitasunak eta integrazio-egoerak nabarmentzen dira, berriak direlako.

Halaber, gida honek programazio didaktikoaren ebaluazioari buruzko atal bat du, abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuak eskatzen duen moduan.

Ikastetxe bakoitzak erabakiko du ebaluazio hori programazio bakoitzari erantsitako dokumentu batean jasoko duen, edo ikasturte amaierako memorian sartuko duen. Funtsezkoena zera da, irakasleek programazio-planifikazioaren ezaugarri guztiak egi bihurtzea; hauek dira: egokitasuna, zehaztasuna, malgutasuna eta bideragarritasuna. Hortaz, ez litzateke ikasturte amaieraren zain egon beharko programazioak «funtzionatu duen ala ez» aztertzeko; aitzitik, beharrezko aldaketak egin behar dira etengabeko ebaluazioren bidez. Era berean, ebaluazioa egiteko balioko duten adierazleak garatzen dira.

Gida honen amaieran bost eranskin daude, zeinak barne hartzen dituzten urteroko programazio didaktikoa egiteko, unitate didaktikoak planifikatzeko eta programazio didaktikoa ebaluatzeko beharrezko txantiloak, bai eta arazo-egoera bat garatzen duten unitate didaktikoen adibideak eta ikastetxeak ikasleen gaitasunen garapenean duen zereginaren laburpen-koadroa ere.

Dena den, ikastetxe bakoitzak bere curriculum-proiektua finkatzeko erabakiak hartu ahal izango ditu arloko edo irakasgaiko programazio didaktikoetan, dagokion autonomia pedagogikoaren barruan.

Azkenik, nabarmendu nahi da gida hau Berritzegune Nagusiko, ISEI-IVEIko, UPV/EHUko Bilboko Irakasleen Eskolako eta Hezkuntza Ikuskaritzako kideek osatutako lan-taldeak egin duela. Talde horrek egindako lanaren helburua da dokumentu adostu bat sortzea, lagungarri izan dakien ikastetxeei arloen eta irakasgaien programazio didaktikoak egiteko, eta lagungarri izan dakien, halaber, aholkularitza- eta ebaluazio-lanak egiten dituzten zerbitzuei, lan hori modu koordinatu eta koherentean egiteko. Halaber, adostutako jokabide bat izatea erraztu dezake, bai hasierako prestakuntzan bai irakasleen etengabeko prestakuntzan.

2. Zergatik eta zertarako egin programazioa

Programazio didaktikoa irakasle-lanaren zati da, eta irakasteko eta ikasteko prozesua hobetzearekin lotuta dago. Funtsean, ikasleen beharrak eta ezaugarriak finkatzen ditu, lortu nahi diren helburuak aztertzen ditu, eta, beraz, irakasle-taldeak bere ikasleek ahalik eta arrakastarik handiena lortzeko hartzen dituen erabakiak zehazten ditu. Aurretiko hausnarketa horiek egokiak eta errealistak izatearen baitan egongo da, neurri batean, programazioaren kalitatea eta emaitza.

Gida honek ikasturte bakoitzerako alor- eta irakasgai-programazio bakarra proposatzen du, edozein izanik ere hezkuntza-maila horretan ikastetxean dauden taldeen kopurua eta ezaugarriak. Irakasle-taldeari dagokio programazioa egokitzea, eta, orokorrean, egokitzapen horiek jarduerak desberdintzeari (ikasleen ezaugarrien arabera, indartzeko edo curriculuma zabaltzeko beharrezko jarduerak txertatuz), ebaluazio-prozesuak finkatzeari eta alderdi metodologikoetan erabakiak hartzeari buruzkoak izango dira.

Programazioa hezkuntza-jardueratik, hots, ikasgelako lanetik hurbilen dagoen maila da, eta haren helburuak lotura zuzena du irakasteko eta ikasteko prozesuaren kudeaketa praktikoarekin eta horren bidez lortzen den emaitzarekin. Hezkuntza-asmo jakin batzuk zehazten dituen dokumentua da.

Zuzenean eragiten dio irakasleen lanari; izan ere, irakasleen funtzioetako bat da esleituta dituzten arloak, irakasgaiak eta moduluak programatzea eta irakastea (2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa; 91. artikulua), alde batera utzita inprobisazioa eta hezkuntzarekin loturarik ez duen aktibismoa. Era berean, ikastetxeko irakasle-taldearentzako esparru koherente bat da. Azkenik, ikastetxe bakoitzeko hezkuntza-komunitateari eragiten dio; izan ere, aurrez Hezkuntza Proiektuan eta, are zehazkiago, Ikastetxearen Curriculum Proiektuan hartutako erabakiak testuinguruan zehazten ditu. Beraz, hezkuntza-jarduerari laguntzen dio ikasturte osoan.

Gainera, programazio didaktikoa egiteak araudiak ezarritako betebeharrak erantzuten dio: ebaluazio objektibo bat izateko eskubidea bermatzeari, hain zuzen. Ezinezkoa da eskubide hori bermatzea, ez bada edukien, helburuen eta ebaluazio-irizpideen publikotasuna ziurtatzen aurrez. Publikotasun horri esker, ikasleek eta haien gurasoek edo adingabeen legeko ordezkariak alderdi horien berri izango dute.

Beraz, programazio bat egitea irakasle-taldeak hartu beharreko erabakien barruan sartzen da, eta irakasle bakoitzak bere hezkuntza-jarduerari buruz duen kontzientzia areagotzeko balio du.

Ikastetxe bakoitzak programazio didaktikoaren eredu jakin bat aukera dezake (arloka edo irakasgaika, alorka, proiektu orokorra edo diziplina arteko proiektuka...), bere autonomiaren garapenaren barruan, baina ikastetxeko plangintza-dokumentuetan hartutako erabakiak lotesleak izango dira irakasle guztientzat, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak 48.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Programazio didaktikoa eta hori osatzen duten elementuak

Abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 25. artikulua ezartzen duenez, programazio didaktikoa arlo eta irakasgai bakoitzeko planifikazio-, garapen- eta ebaluazio-tresna da; bertan zehazten dira curriculumeko elementuak, Ikastetxeko Curriculum Proiektuaren arabera, ikasleen ezaugarrietara moldatuta.

Gutxienez honako elementu hauek izan beharko ditu:

- Ikasturtean zehar garatu beharreko zehar-konpetentziak eta diziplina barrukoak, eta integrazio-egoerak
- Helburuak
- Edukiak
- Ebaluazio-irizpideak eta lorpen-mailaren adierazleak
- Kalifikazioa
- Erabaki metodologikoak eta didaktikoak
- Curriculuma garatzeko materialak eta baliabideak

Aurreko osagaietan ez da agertzen «aniztasunarekiko arreta»; izan ere, inklusibotasunaren printzipioak programazioaren elementu guztietan egon eta eragin behar du.

Ikasturte bakoitzaren hasieran, ikastetxeak arlo edo irakasgai bakoitzaren programazio didaktikoak egiteko eta ebaluatzeko irizpideak ezarriko ditu.

Ikasturte bereko irakasle-taldeak koordinatuko ditu ikasgelako programazio didaktikoak, elkarren arteko koherentzia izan dezaten.

Arlo edo irakasgai bera ematen duten irakasleek eta, hala badagokio, dagokion sail didaktikoak, etapa bakoitzean ikasturte bakoitzeko programazio didaktikoa egiten lagunduko dute, bermatuak egon daitezzen bai koordinazioa bai alor edo irakasgai bera jasotzen duten ikasleen aukeraberdintasuna.

Honako hauek hartzen ditu barnean gidak:

- Programazioko elementuen definizioa, bai eta ezaugarri batzuk eta gogoeta orokor batzuk ere.
- Kontrol-galderak, programazioa egiten duen irakasle-taldeak bere lana (programazioaren ezaugarriak, kalitatea eta zehaztasun-maila) ebalua eta egiazta dezan. Galdera-zerrenda hori erreferentzia bat baino ez da (osatu edo zehaztu daiteke gehiago), baina baliagarria izan daiteke funtsezko alderdi batzuk ez ahazteko. Horrez gain, baliagarria izan daiteke Berritzeguneko taldeek aholkuak emateko duten funtzioa gauzatzeko, bai eta Hezkuntza Ikuskaritzak ebaluazio-eta kontrol-lanak egiteko ere.
- Curriculumeko arlo edo irakasgairen bateko elementuen adibideak. Aurkeztuko ditugun adibideak programazio hipotetiko oso baten zatiak dira.

3.1. Programazio didaktikoa

Programazio didaktikoa honako hau da: ikasturte bateko arlo edo irakasgai jakin batean ikasle-talde jakin baterako erabiliko den irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren plangintza sistematizatua.

Kontrol galdera hauek baliagarriak dira irakasle-taldeen ikasturte hasieran dokumentua idatz dezaten:

Kontrol-galderak

- Taldearen ezaugarriei eta ikasleen aniztasunari modu inklusiboan erantzuteko aukera ematen al du?
- Programazio didaktikoak egiteko eta ebaluatzeko irizpideak ezarri al dira?
- Nork egin dute, arlo hori ematen duten irakasleek ala irakasgaiaren sail didaktikoko kideek?
- Ikastetxearen Curriculum Proiektua (ICP) zehatzago lantzeko balio al du (Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzeko dekretua garatzen du ICPk)?
- Programazioaren elementu guztiak al ditu?:
 - Zeharkako eta diziplina barruko oinarrizko gaitasunak
 - Integrazio-egoerak
 - Helburuak
 - Edukiak
 - Ebaluazio-irizpideak eta lorpen-mailaren adierazleak
 - Kalifikazioa
 - Erabaki metodologikoak eta didaktikoak
 - Curriculuma garatzeko materialak eta baliabideak
- Programazio osoak ikasle guztien oinarrizko gaitasunak garatzeko balio al du?
- Programazioaren elementu guztien garapena koherentea al da?
- Aurrerapen koherentea al dago arlo edo irakasgai honen programazioaren planteamenduan, etapa osoan zehar?
- Koherentea al da programazioaren planteamendua, hezkuntza-maila bereko beste arlo edo irakasgaien programazioekin alderatuta?

3.2. Programazio didaktikoaren elementuak

Atal honetan programazio didaktikoaren elementuak garatzen dira (definizioa, kontrol-galderak eta adibideak).

3.2.1. Zeharkako eta diziplina barruko oinarrizko gaitasunak

Zeharkako oinarrizko gaitasunak bizitzako esparru eta egoera batzuekin zerikusia duten arazoak (pertsonalak, sozialak, akademikoak eta laboralak) eraginkortasunez konpontzeko behar dira. Oinarrizko diziplina-gaitasunak garatzen dituzten alor eta irakasgaietako edukiak ikasteko prozesuan integratuta soilik ikas eta ebalua daitezke.

Oinarrizko diziplina-gaitasunak bizitzako esparru eta egoera batzuekin zerikusia duten arazoak (pertsonalak, sozialak, akademikoak eta laboralak) eraginkortasunez konpontzeko behar dira, baina, kasu honetan, beharrezkoa da diziplina-arlo edo -irakasgai batekin lotutako berariazko baliabideak erabiltzea. Gainera, behar bezala gara daitezen lortzeko, zeharkako oinarrizko gaitasunek tartean egon behar dute.

Kontrol-galderak

- Programazio didaktikoak zeharkako bost gaitasunak aurreikusten al ditu?
- Programazio didaktikoak, arloarekin edo irakasgaiarekin zuzenean lotutakoaz gain, diziplina-gaitasun guztiak barne hartzen al ditu?
- Helburuek zeharkako oinarrizko gaitasunak aurreikusten al dituzte?
- Arlo eta irakasgai ez linguistiko guztietan, zehazten al da hitzezko edo hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasunarekin lotutako helbururik?
- Proposatuta al da hainbat gaitasun bateratzen dituen lana ahalbidetzen duen arazo-egoerarik?
- Arloa edo irakasgaia ebaluatzeko irizpideek ahalbidetzen al dute zeharkako oinarrizko gaitasunak ebaluatzea?

**ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO
DIDAKTIKOA EGITEKO TXANTILOIA**

**PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN
DIDÁCTICA ANUAL DE ÁREA O MATERIA**

Urteko/ikasmailako programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>		kodea: <i>código:</i>	
etapa: <i>etapa:</i>	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	3. ikasturtea
arloa/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	Gaztelania eta Literatura		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>áreas/materias integradas</i>			
diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna Arterako eta kulturarako gaitasuna		
irakasleak: <i>profesorado:</i>		ikasturtea: <i>curso:</i>	2017/2018

Zeharkako gaitasunak/ Competencias transversales:

1. Hitzeko, hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna
3. Elkarbizitzarako gaitasuna
4. Ekimen eta espiritu ekintzailerako gaitasuna
5. Izaten ikasteko gaitasuna

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
<ol style="list-style-type: none"> 1. Informazioaren teknologiak espiritu kritikoaz eta autonomiaz erabiltzea, informazioa hainbat iturritatik lortzeko eta informazio horren fidagarritasuna ebaluatzeko. 2. 	<p>14. Informazio-teknologiak autonomiaz erabiltzea informazioa bilatzeko, hautatzeko, kudeatzeko eta komunikatzeko, eskola-jarduerako premiei erantzuteko.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Informazioa bilatzen eta aurkitzen du, bilaketa aurreratuko tresnak eta gaikako bilatzaileen bat erabiliz. • Aukeratutako informazioa modu eraginkorrean biltegitratzen eta berreskuratzen du, bertako edo onlineko euskarriak erabiliz. • Informazioa autonomiaz etiketatzen du, modu egokian eta eraginkortasunez. • Komunikazio- eta lankidetzeta-helburuetara egokitutako askotariko tresnak eta aplikazioak erabiltzen ditu. • Informazio-iturrien fidagarritasuna ebaluatzen du, modu autonomoan eta emandako jarraibideak kontuan hartuz.

3.2.2. Helburuak

Definizioa

Helburuak hezkuntza-jardueraren zertarakoak dira. Zehazten dute zer jakin, alderatu, lotu, aplikatu, ulertu, azaldu, aztertu edo interpretatu beharko duten ikasleek ikasturtearen amaieran. Honako hauek dituzte erreferentziatzat: etapako helburu orokorrak, arloaren edo irakasgaiaren helburuak, eta oinarrizko gaitasunak.

Kontrol-galderak

- Bat al datoz arloko edo irakasgaiko etapako helburuekin?
- Ongi mailakatuta al daude etapako ikasturte guztietan zehar?
- Helburu multzoak barne hartzen al ditu zeharkako oinarrizko bost gaitasunak?
- Arlo eta irakasgai ez linguistiko guztietan, zehazten al da hitzezko edo hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasunarekin lotutako helbururik?
- Helburuek barne hartzen al dute irakasgaiarekin edo arloarekin zuzenean erlazionatutako oinarrizko diziplina-gaitasunaz gain beste gaitasunik?
- Helburu guztiak bat al datoz ebaluazio-irizpideekin?
- Helburuen adierazpena ikasle guztientzako itxaropen handiekin lotuta al dago?

HELBURUAK
ADIBIDEA (LH)

LEHEN HEZKUNTZA. 6. maila

NATURA-ZIENTZIAK

Giza gorputzeko organo nagusiak ezagutzea (zelulak, organoak, aparatuak eta sistemak), ohitura osasungarrien eta gorputzaren funtzionamenduaren arteko harremana ulertzeko; halaber, norberaren gorputza eta sexu-identitatea onartzea eta gizabanakoen arteko desberdintasunak balioestea, osasuna guztion ongia dela ulertzeko.

HELBURUAK
ABIDIBEA (DBH)

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA. 4. maila

MATEMATIKA

Askotariko testuingurutatik eratorritako eta taula, grafiko, adierazpen sinboliko edo ahozko espresio bidez adierazitako harreman funtzionalak identifikatzea, lantzea, aurkeztea eta aztertzea, funtzio eta grafikoen hizkuntzaren garrantzia ulertzeko.

3.2.3. Integrazio-egoera (arazo-egoera)

Gaur egungo curriculumak konpetentzietan oinarritzen da, eta arazo-egoerei erantzun egokiak ematen dakiten pertsonak prestatzeko konpromisoa defendatzen du. Hau da, planteatzen du ikasleak egoera konplexuen eta esanguratsuen aurrean jarri behar ditugula, egoera horiek konpon ditzaten, horretarako behar den konpetentzia edo konpetentzia multzoa baliatuz. Dekretuan modu berean erabiltzen dira «arazo-egoera» eta «integrazio-egoera» terminoak. Dokumentu honetan «arazo-egoera» terminoa erabiltzea erabaki da, kontzeptu zabalagoa delako eta «integrazio-egoera» barne hartzen duelako.

Arazo-egoera da ikasle batek edo ikasle-talde batek hainbat trebetasun eta ezagutza martxan jarri behar dituen egoera bat, testuinguru praktikoko batean (akademikoa, eguneroko bizitzakoa, soziala...) zeregin jakin bat ebatzeko, non irtenbidea ez den a priori agerikoa. Arazo-egoera irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren abiapuntua da, hots, jardueren sekuentziaren eragilea. Halaber, gaitasunei buruzko ebaluazioa integrazio-egoeraren bidez proposatzeko oinarria da.

Ikasturtean zehar garatuko diren arazo-egoerak zenbatu eta deskribatuko dira, labur, l. eranskinari dagokion atalean. Deskribapen horrek barne hartuko ditu, gutxienez, testuinguruaren datu aipagarriak, arazoa eta egoera bakoitzaren azken zeregina.

Kontrol-galderak

- Urteroko programazioan agertzen al dira arazo-egoerak?
- Ikasleen ikasketa-prozesurako esanguratsuak diren arazoak edo erronkak proposatzen al dira?
- Testuinguruan kokatuta al daude? Deskribatzen al da kokatzen diren ingurua?
- Zereginak xehetasunez zehazten al du zer espero den ikasleak egitea?
- Arazo-egoerak ulergarriak al dira ikasle guztientzat, eta helburuen lorpenean mailakatzea ahalbidetzen al dute?

LEHEN HEZKUNTZA. 6. maila

NATURA-ZIENTZIAK

1. arazo-egoera:

2. arazo-egoera:

3. arazo-egoera: NOLA BARREIATZEN DIRA INFEKZIOAK?

Testuingurua:

Organismoak berau osatzen duten aparatuen eta organo-sistemen arteko mihizadura eta koordinazio zehatzari esker funtzionatzen du. Pieza guztiek ongi funtzionatzen dutenean, pertsonak osasun ona duela diogu. Gaixotasunak mehatxua dira, eta horregatik izan behar ditugu bizi-ohitura osasungarriak, zeinak gorputz-makina egoera onean mantenduko duten eta haren iraupena ahalik eta gehien luzatuko duten.

Hotzeria eta gripea dira eskolaren alorreko gaixotasun ohikoenak, eta agian, kutsakorrenak ere bai. Katarroak eta gripea birusek eragiten dituzte, eta, beraz, ezin dira antibiotiko bidez sendatu.

Infekzio horiek hedatzeko modurik ohikoena zeharkakoa da, hots, emisio lainoztatuen bidezkoa, esaterako, eztularen edo doministikuen bidezkoa. Bide zuzenago batetik ere kutsa daitezke, hots, gizakien arteko kontaktuaren (ukipena, musuak, etab.) edo kutsatutako jakien bidez.

Doministiku egitea da gure gorputzak mikrobio kaltegarriak eta arnasten dugun hautsa botatzeko duen moduetako bat. Mikrobio kaltegarriak eta hautsa sudurreko biloetan harrapatuta geratzen dira, eta kilimak sortzen dituzte.

Era horretan hedatzen edo transmititzen diren gaixotasunak, besteak beste, hotzeria edo katarroa eta gripea dira, bai eta infekzio arrarago eta larriagoak ere, hala nola, meningitisa edo tuberkulosia, zeinak hilgarriak izan daitezkeen.

Arazoa

Zer neurri har daitezke aire bidez kutsatzen diren gaixotasunak gutxitzeko?

Zeregina

Ikasgelan esperimendu bat egitea, gaixo dagoen pertsona baten doministikuen hedapena eta irismena neurtzeko (flasko lainoztagailu baten bidez), aldagai guztiak aztertuz (esku batean eskularrua jarrita, paperezko zapi batekin, etab.). Kartel bat egitea esperimendua eta ateratako ondorioak adierazteko, eta infekzioen hedapena prebenitzeko metodarik hoberena azaltzeko.

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA. 4. maila

MATEMATIKA

1. arazo-egoera:

2. arazo-egoera: LAGUNTZEN AL DIGUTE FUNTZIO MATEMATIKOEK GURE BIZITZAN?

Testuingurua:

Aitorrek izugarri atsegin du hegazkin arinean hegan egitea. Oporretan hegazkin arin bat alokatu du; haren gurutzaldi-abiadura 300 km ordukoa da aire lasaian (haizerik gabe). Hegazkin arin horrek gehienez lau orduz hegan egiteko erregaia du. Aitorrek aireportutik hainbat kilometrotara dauden paisaia batzuk ezagutu nahi ditu. Hegaldia egin nahi duen egunean haize handi samarra dago, 50 km ordukoa (alde), eta, horren ondorioz, lurrarekiko duen gurutzaldi-abiadura 350 km ordukora igo da. Hegan ari dela konturatu da itzuliko bidaian haizea kontra duela eta, ondorioz, abiadura 250 km ordukoa izango dela.

Arazoa

Zein da Aitorrek aireportutik egin dezakeen distantziarik handiena, itzuliko bidaia egiteko aski erregaia izango duela ziurtaturik?

Zeregina

Lanaren amaieran, proposatutako arazoaren emaitza aurkeztu eta komunikatuko dute aurkezpen digital bidez. Modu arrazoituan egingo da, ateratako ondorioak justifikatuta. Gainera, komenigarria litzateke ikertzea zein den hegazkin arinak egin dezakeen distantzia handiena haizearen hainbat abiaduraren arabera. Aurkezpenean, proposatutako egoeretako alderdirik nabarmenenak azpimarratuko dira.

3.2.4. Edukiak

Definizioa

Edukiak dira arloko edo irakasgaiko helburuak lortzeko modu integratuan garatu nahi diren prozedurak, kontzeptuak eta jarrerak. Proposatutako helburuak betetzeko eta oinarrizko gaitasunen garapena lortzeko bitartekariak eta tresnak dira. Unitate didaktikotan, sekuentzian, ikaskuntza-gunetan, proiektutan eta abarretan antolatuta aurkeztu behar dira, eta ikaskuntza-unitate bakoitzaren jatorriko arazo-egoeraren ebazpenaren baldintzen arabera aukeratu behar dira.

Edukien sekuentziazioan adieraziko da zein diren aurreko atalean zerrendatutako arazo-egoerekin lotutako unitate didaktikoak, proiektuak, ikaskuntza-guneak...

Kontrol-galderak

- Edukiak hainbat ikaskuntza-unitatetan (sekuentziak, ikaskuntza-guneak, proiektuak...) antolatuta aurkezten al dira?
- Aukeratutako edukiek bermatzen al dute ikasle guztiek oinarrizko gaitasunak barneratuko dituztela eta jarritako helburuak lortuko dituztela? Koherenteak al dira curriculumarekin?
- Arazo-egoeraren hautaketak eta ikaskuntza-unitate bakoitzeko edukien aukeraketak ahalbidetzen al dute alor guztietan (akademikoa, pertsonala, soziala eta laborala) lan egitea?
- Errazten al dute emakumeen eta beste kultura batzuen ekarpenak agerian jartzea?
- Aukeratutako edukiek ikuspegi orokorra edo diziplina arteko ikuspegia sustatzen al dute?
- Identifikatu al dira nahitaezko edukiak? Eta neurri espezifikoak behar izan ditzaketen eduki konplexuagoak?
- Lehentasuna al dute prozedurazko eta jarrerazko edukiek, oroimena soilik lantzen dutenen aldean?
- Zehaztu al da ikaskuntza-unitateen (zeregina, proiektua, sekuentzia) tenporalizazioa?

- Aukeraketak kontuan hartzen al du ikasleen aniztasuna, eta errazten al du zabaltzeko nahiz finkatzeko neurriak hartzea edo egokitzapenak egitea?

EDUKIAK
ADIBIDEA (LH)

LEHEN HEZKUNTZA. 6. maila
NATURA-ZIENTZIAK

1. unitatea: ...

2. unitatea: ...

3. unitatea: **Gizakia eta osasuna.**

Lotura du 3. arazo-egoerarekin («Nola barreiatzen dira infekzioak?»)

- Lankidetzaren eta elkarlana, taldean ikasteko zereginetan.
- Gorputz-dimentsioaren auto-erregulazioa.
- Irizpideak eta jarraibideak, zertarako eta fenomeno naturaletako eta egoera errealeko arazoak behatzeko, identifikatzeko eta ebazteko behar den metodologia zientifikoa eta bere ezaugarri nagusiak aplikatzeko: behaketa egitea, eztabaidatzea, hipotesiak eratzea, egiaztatzea, esperimintatzea, ondorioak ateratzea eta emaitzak jakinaraztea.
- Lan zientifikoaren berezko estrategiak, zeinak laguntzen duten hainbat ohitura eta jarrera garatzen, hauekin lotutakoak, adibidez: jakin-mina, interesa, zehaztasuna eta doitasuna, sormena, pentsamendu kritikoa, norberaren lanean ahalegintzea eta autonomia izatea, banakako nahiz taldeko zereginetan jarrera arduratsua eta aktiboa izatea.
- Proiektuak planifikatzeko eta egiteko, eta txostenak aurkezteko estrategia, jarraibide eta irizpideak.
- Gizakion bizi-funtzioak. Aparatuak eta sistemak.
- Elikadura: arnas-, digestio-, zirkulazio- eta irazte-aparatuek.
- Ugalketa: sexu bakoitzaren ugalketa-aparatua.
- Erlazioa: nerbio-sistema eta lokomozio-aparatua.
- Giza organismoaren aparatuek eta sistemak kaltetzen dituzten gaixotasun ohikoenak.
- Gizakiaren ongizaterako eta gaixotasunak prebenitzeko jokabide osasungarriak. Mendekotasunek pertsonen garapenean dituzten ondorio kaltegarriak eta kontsumoaren prebentzioa.
- Jokabide arduratsua norberaren gorputzaren zainketan. Erabakiak eta ohitura jakin batzuk hartzea: elikadura osasungarria eta orekatua, higiene pertsonala, gehiegikeriarik gabeko ariketa fisiko erregulatua eta eguneroko atsedenak.
- Norberaren eta besteren gorputza onartzea, mugak muga eta aukerak aukera.
- Gogoeta kritikoa egitea eta ulertzea pertsonen zaintzak eta osasunak alderdi soziala ere badutela, eta egoera sozialak eta ekonomikoak eragina dutela horietan.

**DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA. 4. maila
MATEMATIKA**

1. unitatea: ...

2. unitatea: FUNTZIO ETA GRAFIKOEN HIZKUNTZA

...

6. unitatea: FUNTZIO ETA GRAFIKOEN HIZKUNTZA

Lotura du 2. arazo-egoerarekin («Laguntzen al digute funtzio matematikoen gure bizitzan?»)

- Magnitudeen arteko mendekotasun funtzionala. Egunerokotasuneko eta beste irakasgaietako fenomenoak irudikatzen dituzten grafikoaren azterketa eta deskribapen kualitatiboa.
- Eguneroko bizitzatik datozen egoerak eta hainbat ezagutza-esparru ikertzeko eredu linealak. Horien adierazpen aljebraikoa lortzea.
- Funtzio kuadratikoa. Irudikapen grafikoa. Funtzio horiek erabiltzea egunerokotasuneko egoerak irudikatzeko.
- Aieruz aritzea, datuen aldaketa hipotetikoak egin ondoren.
- Funtzioei buruzko ikerketa matematiko errazak egitea.
- Matematikako ereduak eratzea testuinguru sinpleetan.
- Funtzioen hizkuntzari buruzko arazoak ebaztea matematikako morroiak erabiliz.
- Informazioa ebaluatzea eta adieraztea (argudiatu, justifikatu...).
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, aztertzea, gauzatzea eta egiaztatzea.
- Lankidetzaren, elkarlana eta ebaluazioa, taldean ikasteko zereginetan.
- Gauzatutako prozesuei eta lortutako emaitzei eta ondorioei buruzko txostenak eta dokumentuak egitea.
- Matematikak egunerokotasuneko egoerei aurre egiteko duten garrantzia onartzea eta balioestea, eta hainbat gizarte-arazo aztertzea, duten funtzioari eta eraginari buruzko jarrera kritikoa mantenduz.

3.2.5. Ebaluazio-irizpideak eta lorpen-mailaren adierazleak

Definizioa

Ebaluazio-irizpideak erreferentzia puntua dira ebaluatzeko zein mailatan lortu diren helburuak arlo edo irakasgai bakoitzean, bai eta diziplinari buruzko nahiz zeharkako oinarrizko gaitasunen garapen maila egiaztatzeko ere. Irizpide horiek arauemaileak dira. Lehen hezkuntzan, irizpideak zikloka agertzen dira eta irakasle-taldeak ikasturte bakoitzerako mailakatu beharko ditu. DBHn ikasturte bakoitzerako zehazten dira; beraz, programazioan hitzez hitz jaso behar dira.

Ebaluazio-irizpideak hainbat lorpen-mailaren adierazletan zehazten dira; adierazle horiek orientagarriak dira eta «236/2015 Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea» dokumentuan xehatzen dira. Lorpen-mailaren adierazleek ikasle bat zer egiteko gai den zehazten duten jokabide behagarriak aipatzen eta deskribatzen dituzte. Ikasturte jakin batean ebaluazio-irizpide baten lorpena ebaluatzeko, irakasle-talde bakoitzak lorpen-mailaren adierazle-zerrenda egokiagoa egin dezake.

Kontrol-galderak

- Ebaluazio-irizpideak proposatutako helburuekin lotuta daude? Helburu horiek zehazten dituzte?
- Ebaluazio-irizpideek arlo edo irakasgaiko berezko oinarrizko diziplina-gaitasunen osagai guztiak jasotzen dituzte?
- Ebaluazio-irizpideek ikasleen zeharkako oinarrizko gaitasunen garapena ere baloratzen al dute?
- Lehen hezkuntzan, ebaluazio-irizpideak ikasturte bakoitzerako mailakatuta al daude?
- Proposatutako lorpen-mailaren adierazleek behar adina zehazten al dute ebaluatuko dena?
- Aniztasunari modu egokian erantzuteko behar adinako malgutasuna ematen al dute lorpen-mailaren adierazleek?

LEHEN HEZKUNTZA. 6. maila
NATURA-ZIENTZIAK

1. Gidoi baten laguntzaz, ikerketak eta laborategiko edo bertatik bertarako praktikak egitea, metodologia zientifikoa aplikatuz, egiteko modua ebaluatuz eta emaitzak interpretatuz.

- Naturako arazo edo fenomenoak identifikatzen ditu.
- Arazo-egoeren aurrean, hipotesi egiaztagarriak egiten ditu.
- Eragindako egoera edo fenomeno aztertzeko praktika posibleak proposatzen ditu.
- Datu esperimentalak jaso, antolatu eta interpretatzen ditu, hainbat baliabide digital nahiz analogikoren laguntzaz: taulak, grafikoak, kontzeptu-mapak, etab.
- Azalpen arrazoituak ematen ditu, hipotesia berresteko edo gezurtatzeko asmoz.
- Ikerketaren emaitzak komunikatzen ditu eta txostenak egiten ditu, hainbat baliabide eta euskarri erabiliz: idatzizko baliabide analogiko eta/edo digitalak, ahozkoak edo digitalak.

2. Lan zientifikoaren berezko estrategiak aplikatzea zereginak eta proiektuak egiteko.

- Naturaren fenomenoak ezagutzeko jakin-mina eta interesa erakusten du.
- Lan pertsonalean ahalegina eta autonomia erakusten ditu, eta jarrera aktiboa eta arduratsua du zereginetan.
- Sormenezko trebetasunak erakusten ditu, eta pentsamendu kritikoa erabiltzen du proposatutako galderen erantzunak bilatzean.
- Lan zientifikoa antolatzen du, ordenari eta zehaztasunari eutsita.
- Bakarkako lana, taldekoa eta lankidetzakoa egiten ditu bide digitalen bitartez, eta gatazkak konpontzeko trebetasunak erakusten ditu.

3. Laborategiko oinarrizko materiala ezagutzea eta aukeratzea eta behar bezala erabiltzea.

- Laborategiko oinarrizko materialaren zerrenda egiten du, izan ditzakeen aplikazioak ere jasota.
- Hautatutako materiala modu egokian erabiltzen eta manipulatu du.
- Begi biko lupa eta mikroskopia optikoa eta digitala maneiatzen ditu.
- Lan esperimentalean oinarrizko segurtasun-arauak ezagutzen eta errespetatzen ditu, eta erabiltzen dituen tresnak eta materiala zaintzen ditu.
- Lan esperimentalean sortutako hondakinak kudeatzeko oinarrizko arauak betetzen ditu.

4. Tresna digitalak eta Internet informazioa kudeatzeko eta esperientzia birtualak egiteko erabiltzea, programa eta aplikazio digital egokiz baliatuz, behaketako datuak barneratzea eta emaitzak jakinaraztea.

- Informazio-iturrien fidagarritasuna ezagutzeko irizpideak erabiltzen ditu.
- Hainbat formatutako informazioa bilatzen, kontsultatzen eta erabiltzen du: idazkiak, irudiak, grafikoak, bideoak, argazkiak, audioak, etab.
- Informazioaren osoko tratamendua egiten du: informazio zehatza eta garrantzitsua aukeratu eta antolatzen du, aztertu egiten du, ondorioak ateratzen ditu, jarraitutako prozesuari buruzko gogoeta egin eta komunikatu egiten du.
- Hiztegi zientifikoa egoki erabiltzen du.
- Tresna digitalak modu kontrolatuan erabiltzen ditu.

5. Ideia zientifikoak aurrerapen teknologikoekin eta beste arlo batzuetakoekin lotzea eta bizi-kalitatea hobetzen laguntzen dutela ohartzea.

- Zientziaren eta teknologiaren garapenak norbanakoaren eta gizartearen aurrerabidean duen eragina deskribatzen eta azaltzen du.
- Azaltzen du zer erabilpen duten zenbait aurrerapen, produktu eta materialek bizitzako hainbat alorretan: osasuna, kultura, artea, aisia, musika, kirola.
- Hezkuntza zientifikoa herritarren oinarrizko kulturaren parte dela onartzen du.

6. Giza gorputzaren bizi-funtzioetan parte hartzen duten organo, aparatu eta sistema garrantzitsuenak identifikatzea eta kokatzea, eta haien arteko interkonezioaz eta funtzionamenduaren eta zenbait osasun-ohituraren arteko harremanaz jabetzea.

- Gizakion bizi-funtzioen ezaugarri nagusiak identifikatzen eta deskribatzen ditu.
- Grafikoak, ereduak eta eskemak erabiliz gizakion bizi-funtzioetan parte hartzen duten organo nagusiak identifikatzen eta kokatzen ditu.
- Giza gorputzeko organo, aparatu eta sistemen arteko lotura azaltzen du aurkezpen batean.
- Aintzat hartzen ditu elikagai osasungarriek organismoan eragiten dituzten onurak.
- Gizakiaren ongizaterako eta gaixotasunak prebenitzeko ohitura osasungarriak identifikatzen ditu.
- Elikagaien ontziek duten informazioa aztertzen du eta erabakiak hartzen ditu produktuak aukeraketan.
- Identifikatzen du zer funtzio duten txertoek gaixotasunen prebentzioan, eta horiek erabiltzea komenigarria den ala ez argudiatzen du.
- Norberaren gorputza eta sexu-nortasuna onartzen du. Desberdintasunak errespetatzen ditu.
- Larrialdietan jarduteko prozedurak ezagutzen ditu: larrialdietako telefonoak, ebakuazio-arauak... Gainera, lehen-laguntzetako maniobra errazak erabiltzen ditu.
- Modu kritikoan eta arrazoituan jarduten du eta erabakiak hartzen ditu mirari-dieten eta botiken inguruko publizitatearen aurrean.

7. ...

8. ...

9. ...

10. ...

11. ...

12. Adibideen bitartez, giza-jarduerak natura-ingurunean duen eragina argudiatzea, ondorioren bat deskribatzea eta ondorioak ateratzea.

- Baliabide naturalen erabilera edo kontsumo ez jasangarriak eta erabilera horien zenbait ondorio identifikatzen ditu.
- Euskal Autonomia Erkidegoan ohikoak diren zenbait kutsadura motaren eraginak deskribatzen ditu eta horiek prebenitzeko edo gutxitzeko neurriak proposatzen ditu.
- Gizakiak ingurumenean eragindako inpaktua azaltzen du eta alternatibak bilatzen ditu kasu erreal batean.
- Bere egunerokotasuneko energia-erabilera eta -kontsumoari buruzko erabakiak hartzen ditu.

**DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA. 4. maila
MATEMATIKA**

1. Askotariko zenbaki motak, haien eragiketak eta propietateak erabiltzea informazioa jaso, eraldatu eta trukatzeko, eta eguneroko bizitzarekin lotutako arlo zientifikoko berariazko problemak ebaztea.

- Kalkuluak eraginkortasunez egiten ditu, kalkulu mentala, arkatza, papera edo kalkulagailuarekin egindako algoritmoak erabiliz, eta notazio egokiena erabiltzen du, berreketa, erroketak eta kalkulu logaritmikoa barne.
- Zenbatespenak zuzen egiten ditu eta lortutako emaitzak zentzuzkoak diren erabakitzen du, magnitude-ordena, koherentzia dimentsionala, zeinuak eta abar aztertuz.
- Zenbakien berariazko kontzeptuak eta ezaugarriak erabiltzea eskatzen duten problema errazak ebazten ditu alorraren barruan (zenbaki lehenak, segida bereziak, etab.).

2. Ekuazioak, inekuazioak eta hainbat motatako sistema aljebraikoak planteatzea eta askatzea eskatzen duten eguneroko bizitzako eta zientzien berariazko esparruko problemak ebaztea, dagozkion algoritmoak trebetasunez erabiliz.

- Problemen enuntziatuak lengoaia aljebraikora itzultzen ditu.
- Lehen eta bigarren mailako ekuazioak eta lehen mailako inekuazioak planteatzen eta ebazten ditu, aljebra sinbolikoa erabiliz, algoritmo egokiak aplikatuz.
- Ekuazio-sistema linealak planteatzen eta ebazten ditu, eta lortutako emaitzak interpretatzen ditu.

3. Lengoaia aljebraikoa, haren eragiketak eta propietateak trebetasunez erabiltzea, erlazio matematiko zenbakizkoak, alfanumerikoak, geometrikoak eta abar adierazteko eta problemak ebazteko.

- Eragiketak egiten ditu berdintza aljebraikoarekin, horren ezaugarri geometrikoak erabiliz, eta bere ezagutza erabiltzen du problemak ebazteko.
- Ezagutza aljebraikoa erabiliz frogak errazak egiteko jarraitutako prozesua arrazoitzeko eta azaltzeko gai da.
- Lengoaia aljebraikoa erabiltzen du hainbat problema mota (aritmikoak, geometrikoak...) ebazteko.

4. Magnitudeak kalkulatzeko, egoera errealetatik abiatuz neurketa zuzenak eta zeharkakoak eginez, tresna, teknika edo formula egokienez baliatuta (trigonometrikoak barne), eta, era berean, deskribatutako egoerarekin ondoen bat datorren neurri-unitatea erabiltzea.

- Irudi eta gorputz nagusien (triangeluak, laukizuzenak, zirkuluak, prisma, piramideak, zilindroak, konoak eta esfera) azalerak eta bolumenak kalkulatzeko formula egokiak ezagutzen eta erabiltzen ditu.
- Pitagorasen teorema neurketako hainbat testuingurutan erabiltzen du.
- Neurri-problema ebazten ditu eta, horretarako, oinarriko trigonometria-kontzeptuak eta -erlazioak erabiltzen ditu.

5. Geometria analitiko lauko kontzeptuak eta oinarriko prozedurak erabiltzea, bai funtzioak irudikatze bati figura, forma eta konfigurazio geometrikoak deskribatzeko eta aztertze bati.

- Zuzen baten ekuazioaren adierazpenak ezagutzen ditu eta azterketa analitikoan erabiltzen ditu. Paralelismoa, elkarzutasuna eta eragina.
- Teknologia-baliabide interaktiboak erabiltzen ditu irudi geometrikoak sortzeko eta dituzten berezko ezaugarriak behatzeko.

6. Egoera bateko erlazio kuantitatiboak identifikatzea, zer funtzio motak irudika ditzakeen zehaztea eta grafiko baten, zenbakizko datuen edo adierazpen aljebraikoko koefizienteen azterketan oinarrituz batez besteko bariazio-tasaren hurbilketa egin eta interpretatzea.

- Bi magnitudeen arteko erlazio-eredua grafikoki azaltzen eta irudikatzen du, kasu hauetarako: erlazio lineala, kuadratikoa, alderantzizko proportziokoa, esponentziala eta logaritmikoa. Horretarako, informazioaren teknologiaz erabiliz lortutako adibideak erabiltzen ditu.
- Modu arrazoituan adierazten ditu grafiko baten portaeraren edo taula bateko balioen bitartez ikertutako fenomenoari buruzko ondorioak.
- Funtzio baten hazkunde edo beherapena aztertzen ditu, batez besteko aldakuntza-tasaren bidez.

7. ...

8. ...

9. ...

10. Problemak eredu heuristiko bat erabiliz ebaztea: enunziatua aztertzea, estrategia egokiak aukeratzea (zenbaketa zehatza, indukzioa, problema afinak bilatzea, amaieratik hasia, absurdora eramatea, problema ebaztitzat ematea, kontra-adibideak...), beharrezko kalkuluak egitea, lortutako ebazpena egiaztatzea eta problema ebazteko erabilitako prozedura adieraztea, norberaren mailara egokitutako lengoia matematikoa erabiliz.

- Problema ebazteko hainbat estrategia heuristiko ezagutzen eta aplikatzen ditu.
- Hainbat alternatiba aztertzen eta ebaluatzen ditu, eta horiek alda ditzake prozesuan zehar.
- Jarraitutako prozesuari buruz hausnartzen du eta beste problema batzuk ebazteko lagungarri izan daitezkeen ondorioak ateratzen saiatzen da.
- Ateratako emaitzak komunikatzen ditu eta garatutako ideiak eta arrazoiketak azaltzen ditu, hizkera argia erabiliz; horretarako, behar denean, txosten eta dokumentu digitalak egiten ditu.
- Arazo-egoerak ebaztea ahalbidetzen duten eredu matematikoak erabiltzen, lantzen eta sortzen ditu.

Ebaluazio-tresnak

Ebaluazio-tresnak dira ebaluazio-irizpideak lortzen direla egiaztatzeko eta dokumentatzeko beharrezko baliabideak. Nahiz eta ez agertu programazio didaktikoa osatzen duten elementuen artean, irakasle-taldeek tresna batzuk edo besteak erabiltzearen egokitasunari buruz erabaki beharko dute, baloratu nahi den lorpenaren ebaluazio-irizpideen arabera.

Oinarrizko gaitasunak (berariazkoak eta zeharkako guztiak) ebaluatzeko askotariko tresnak erabili behar dira. Horien artean desberdindu daitezke prozesuaren ebidentziak jasotzeko balio dutenak eta lortutako ikaskuntza baloratzera bideratutakoak:

PROZESUA	IKASKUNTZA
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kontratu didaktikoa ▪ Paper-zorroa ▪ Ikasitakoaren egunerokoa ▪ Autoebaluaziorako eta koebaluaziorako galdetegiak ▪ Orientazio-oinarriak ▪ Kontrol-zerrendak ▪ Behaketa-txantiloak ▪ Hasierako ebaluaketa-galdetegiak ▪ ... 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikasleen ekoizpenak ▪ Idatzizko eta ahozko probak ▪ Banakako nahiz taldeko lanak, zenbait euskarritan ▪ Autoebaluaziorako eta koebaluaziorako galdetegiak ▪ Galdetegia edo testa ▪ Behaketa ▪ Errubrika ▪ ...

Kontrol-galderak

- Hainbat ebaluazio-tresna zehaztu dira?
- Tresnen aniztasunak ahalbidetzen al du oinarrizko gaitasunak lortzea?
- Ikasleen aniztasunari behar bezala erantzuten al diete?
- Ebaluazio-tresnak bat al datoz erabilitako metodologiarekin?
- Ebaluazio-tresnek prestakuntzako ebaluazioaren garapenean laguntzen al dute?
- Aurreikusten al da ikasleek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren ebaluazioan parte hartzeko aukera ematen duen tresnarik?

EBALUAZIO-TRESNAK, ADIBIDEA (LH)

LEHEN HEZKUNTZA. 6. maila

NATURA-ZIENTZIAK

Sekuentzia didaktiko bakoitzean tresna desberdinak erabiltzen dira, zeinak, oro har, ikasleei ikasketa-prozesuan hobetzen lagunduko dien prestakuntzako ebaluazioa egiteko balio duten. Tresna horiek aukera ematen digute autoebaluazioko eta koebaluazioko hainbat jarduera egiteko:

- Idatzizko testuak eta egindako beste lan batzuk koebalutzeko txantiloiak.
- Talde-lana baloratzeko behaketa-txantiloiak.
- Prozesua ebaluatzeko errubrikak.

Sekuentzia didaktiko bakoitza amaitzean proba bat egingo da.

Ikasturtean zehar tresna hauek erabiliko dira ikaskuntza ebaluatzeko:

- *Ikasleen koadernoak.*
- *Taldean egindako lanak.*
- *Ikasle bakoitzaren ekoizpenak biltzen dituen paper-zorroa.*
- *Behaketa-txantiloiak.*
- ...

EBALUAZIO-TRESNAK, ADIBIDEA (DBH)

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA. 4. maila

MATEMATIKA

Honako tresna hauek erabiliko dira, nagusiki, ikasleen ikaskuntza ebaluatzeko:

- **Ikasleen koadernoak.** Ikaslearen koadernoak kontrolatzeak aukera ematen ditu hainbat alderdi ebaluatzeko: idatzizko adierazpena, egindako jarduerak, ateratako ondorioak eta egindako laburpenak, erabilitako prozedurak, aurkezpena, etab.
- **Ikasgelako eguneroko lanaren behaketa-txantiloia.** Bereziki alderdi hauen jarraipena egingo da: interesa, motibazioa, lan-ohiturak, arreta, parte-hartzea, ahozko eta idatzizko mezuak ulertzeko zailtasuna, ebazteko tekniken eta algoritmoen aplikazioa, etab.
- **Idatzizko proba objektiboak.** Bakarkakoak izango dira eta batez ere alderdi hauei buruzko informazioa jasoko dute: unitate didaktikoetako oinarrizko ezagutzak, arrazoitze metodoak, prozedura jakin batzuen aplikazioa, etab. Modu antolatuan egingo dira, eta ikasleek ebaluazio-irizpideen berri izango dute.
- **Autoebaluaziorako txantiloiak.**
- **Ikasle bakoitzaren paper-zorroa, zeinak egindako problemen eta lanen inguruko jarduerak biltzen dituen.**

• ...

Ebaluazioaren ondorioak

Ebaluazioaren ondoren hartzen diren erabakiak dira, eta aniztasunari erantzuteko oinarria osatzen dute. Ikasketa-prozesuan, erabaki horiek hainbat esparrutan zertzen dira: kalifikazioan, indartzeko eta egokitzeko neurriak hartzean, zabaltzeko proposamenetan, curriculuma aberastean, berariazko programetan parte hartzean...

Halaber, ikasketa prozesuan, erabaki horiek programazio didaktikoaren edozein elementuren aldaketan zertu daitezke (metodologia, edukiak, lorpen-mailaren adierazleak...).

Oinarrizko Hezkuntzan ikasleen ebaluazioa funtsean prestakuntzako denez, beharrezkoa da irakasleek ebaluazio-prozesuan jasotzen joan diren datuak jakinaraztea ikasle bakoitzari, beren ikaskuntzaren protagonistak diren heinean, horrela, hobetzeko erabakiak hartzen joan daitezten elkarrekin.

Kontrol-galderak

- Aurreikusten al da hezkuntza indartzeko edo curriculuma egokitzeko neurririk, helburuak lortzen ez diren kasuetarako?
- Aurreikusten al da curriculuma aberastuz egokitzapenak egiteko neurririk, helburuak aise gainditzen diren kasuetarako?
- Finkatzeko nahiz aberasteko neurrien kasuan, proposamenak desberdinak al dira, eta ikasle bakoitzari hautemandako beharretara egokitzen al dira? Ez al dira dagoeneko egindakoaren errepikapen hutsa?

EBALUAZIOAREN
ONDORIOAK
ADIBIDEA (LH)

LEHEN HEZKUNTZA. 6. maila
NATURA-ZIENTZIAK

Irakasle-taldeak banakako plan bat diseinatuko du irakasgaiaren helburuak lortzeko zailtasunak dituzten ikasleentzat (indartze-plana), edo erraztasun handiz lortzen dituztenentzat (aberaste-plana), ikasle bakoitzaren beharrei erantzuteko.

Gainera, familiei jakinaren gainean jarriko zaie unean-unean, eta prozesuan duten parte-hartzea sustatzeko orientabideak emango zaizkie.

Hiruhilabeteko bakoitzaren amaieran irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ebaluatuko da, eta, horren ondorioz, plangintza didaktikoa hobetzeko erabakiak hartuko dira.

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK
ABIDIBEA (DBH)

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA. 4. maila
MATEMATIKA

Matematika irakasgaietan, saileko irakasle guztien artean balorazio-saio bat egitea proposatzen da. Saio horretan, ebaluazioan zehar erabili den plana berrikusiko da, ikusitako hutsuneak konpontzen saiatzeko. Proposatutako jarduerari buruzko ikerketa orokor bat egingo da, bai eta egindako jardueraren baten eraginkortasunari buruzko ikerketa zehatzago bat ere.

Lortutako emaitzetatik abiatuta, beharrezko diren aldaketak egingo dira unitatean, haren akatsak eta hutsuneak konpontzeko, eta, oro har, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hobetu ahal izateko, finkatzeko eta zabaltzeko jarduera egokiak proposatuz.

3.2.6. Kalifikazioa

Definizioa

Kalifikazioa ebaluazio-prozesuaren ondoren hartzen den erabakietako bat da. Prozesu horren kodetutako adierazpena da, araudiak ezarritako balorazio-eskalaren arabera.

Arloaren edo irakasgaiaren kalifikazioan kontuan hartuko da zeharkako oinarrizko gaitasun guztien eta erlazionatutako oinarrizko diziplina-gaitasunen lorpena.

Ebaluazio-irizpideak, programazio didaktikoetan gauzatuta, ebaluazioaren oinarrizko erreferentzia dira¹. Beraz, kalifikatzeko, ebaluazio-irizpide bakoitzari ematen zaion pisua edo balioa neurtu behar da.

Ebaluazioaren objektibotasuna bermatzeko, jakinaraziko da zer ebaluazio-prozedura eta -tresna erabiliko diren, eta ebaluazio-irizpide bakoitzari emandako pisuarekin edo balioarekin bat etorri beharko dute. Erabaki horiek ikasleekin partekatzea, barneratu ditzaten, lagungarria da ikaskuntzaren autoerregulazio-mekanismoak gara ditzaten.

Kontrol-galderak

- E baluazio-irizpide bakoitzaren pisua edo balioa zehazten al da?
- A urrekusten al da ebaluazio-irizpide bakoitzaren pisua edo balioa jakinaraztea ikasleei eta beren familiei edo legezko ordezkarietara?
- K alifikazioan kontuan hartzen al da zeharkako eta diziplina barruko oinarrizko gaitasunen lorpena?
- E baluazio-prozedurak eta -tresnak bat al datoz ebaluazio-irizpide bakoitzari emandako pisuarekin?

¹ EHAA 9. zk., abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 46.2. artikulua.

KALIFIKAZIOA

ADIBIDEA (LH)

**LEHEN HEZKUNTZA. 6. maila
NATURA-ZIENTZIAK**

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

**KALIFIKAZIOAR
EN %**

- | | |
|--|-----------|
| 1. Gidoi baten laguntzaz, ikerketak eta laborategiko edo bertatik bertarako praktikak egitea, metodologia zientifikoa aplikatuz, egiteko modua ebaluatuz eta emaitzak interpretatuz. | 10 |
| 2. Lan zientifikoaren berezko estrategiak aplikatzea zereginak eta proiektuak egiteko. | 10 |
| 3. Laborategiko oinarrizko materiala ezagutzea eta aukeratzea eta behar bezala erabiltzea. | 5 |
| 4. Tresna digitalak eta Internet informazioa kudeatzeko eta esperientzia birtualak egiteko erabiltzea, programa eta aplikazio digital egokiz baliatuz, behaketako datuak barneratzea eta emaitzak jakinaraztea. | 5 |
| 5. Ideia zientifikoak aurrerapen teknologikoekin eta beste arlo batzuetakoekin lotzea eta bizi-kalitatea hobetzen laguntzen dutela ohartzea. | 5 |
| 6. Giza gorputzaren bizi-funtzioetan parte hartzen duten organo, aparatu eta sistema garrantzitsuenak identifikatzea eta kokatzea, eta haien arteko interkonexioaz eta funtzionamenduaren eta zenbait osasun-ohituraren arteko harremanaz jabetzea. | 10 |
| 7. Barneratzea eta saihestea, egunerokotasunean, drogen kontsumoa eta norberaren ongizatea eta osasuna kaltetu dezaketen mendekotasunak sor ditzaketen jokabideak. | 5 |
| 8. Izaki bizidunen arteko erlazioak azaltzea, egiturak, oinarrizko ezaugarriak, funtzioak eta habitatak aztertuta. | 10 |
| 9. Gorputzek argiaren, argindarraren, magnetismoaren, beroaren eta soinuaren aurrean duten jokabidea identifikatzea eta deskribatzea, eta materialen fenomeno fisiko eta kimikoak, esperientzia edo ikerketa txikiak eginez eta emaitzak jakinarazteko tresnarik onena aukeratzea. | 10 |
| 10. Indarrek edo energia-ekarpenek gorputzetan eragiten dituzten mugimendu-, forma- edo egoera-aldaketez jabetzea eta aurreikustea, esperientzia edo ikerketa txikiak egitea eta prozesuaren eta emaitzen berri ematea. | 10 |
| 11. Objektuak eta gailuak planifikatzea eta eraikitzea ekarriko duen proiektu teknologiko bat egitea, energia-iturri, operadore eta material egokiak erabiltzea eta erabilitako estrategiei buruzko informazioa ematea. | 10 |
| 12. Adibideen bitartez, giza-jarduerak natura-ingurunean duen eragina argudiatzea, ondorioren bat deskribatzea eta ondorioak ateratzea. | 10 |

KALIFIKAZIOA

ABIDIBEA (DBH)

**DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA. 4. maila
MATEMATIKA**

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	KALIFIKAZIOAR EN %
1. Askotariko zenbaki motak, haien eragiketak eta propietateak erabiltzea informazioa jaso, eraldatu eta trukatzeko, eta eguneroko bizitzarekin lotutako arlo zientifikoko berriazko problemak ebaztea.	8
2. Ekuazioak, inekuazioak eta hainbat motatako sistema aljebraikoak planteatzea eta askatzea eskatzen duten eguneroko bizitzako eta zientzien berriazko esparruko problemak ebaztea, dagozkion algoritmoak trebetasunez erabiliz.	10
3. Lengoaia aljebraikoa, haren eragiketak eta propietateak trebetasunez erabiltzea, erlazio matematiko zenbakizkoak, alfanumerikoak, geometrikoak eta abar adierazteko eta problemak ebazteko.	10
4. Magnitudeak kalkulatzeko, egoera errealetatik abiatuz neurketa zuzenak eta zeharkakoak eginez, tresna, teknika edo formula egokienez baliatuta (trigonometrikoak barne), eta, era berean, deskribatutako egoerarekin ondoen bat datorren neurri-unitatea erabilia.	8
5. Geometria analitiko lauko kontzeptuak eta oinarriko prozedurak erabiltzea, bai funtzioak irudikatzeke bai figura, forma eta konfigurazio geometrikoak deskribatzeko eta aztertzeke.	8
6. Egoera bateko erlazio kuantitatiboak identifikatzea, zer funtzio motak irudika ditzakeen zehaztea eta grafiko baten, zenbakizko datuen edo adierazpen aljebraikoko koefizienteen azterketan oinarrituz batez besteko bariazio-tasaren hurbilketa egin eta interpretatzea.	8
7. Egoera errealekin lotutako harreman funtzionalak irudikatzen dituzten taula eta grafikoen bidez emandako informazioa aztertzea eta haien jokaerari, bilakaerari eta bukaerako emaitza posiblei buruzko informazioa lortzea.	10
8. Taula eta grafiko estatistikoak egitea eta interpretatzea, baita estatistika-parametro ohikoenak kalkulatzeko ere, bitarteko egokiak erabiliz (arkatza eta papera, kalkulagailua, ordenagailua, kalkulu orria) eta erabilitako laginen adierazgarritasuna kualitatiboki baloratzeko.	10
9. Zoriarekin eta probabilitatearekin lotutako egoerak eta fenomenoak antzematea eta konbinazio-kalkuluaren kontzeptuak eta teknikak edo bestelako teknika eta estrategiak aplikatuz eguneroko bizitzako askotariko problemak ebaztea.	10
10. Problema eredu heuristikoa bat erabiliz ebaztea: enuntziatua aztertzea, estrategia egokiak aukeratzea (zenbaketa zehatza, indukzioa, problema afinak bilatzea, amaieratik hasia, absurdora eramatea, problema ebazteko ematea, kontra-adibideak...), beharrezko kalkuluak egitea, lortutako ebazpena egiaztatzea eta problema ebazteko erabilitako prozedura adieraztea, norberaren mailara egokitutako lengoaia matematikoa erabiliz.	12
11. Aintzat hartzea eta sistematikoki erabiltzea Matematika-jarduerarekin lotutako jokabideak, hala nola jakin-mina, pertseberantzia, norberaren ahalmenetan konfiantza izatea, ordena eta sistematikoki berrikustea. Era berean, talde-lanean aritzea, besteen iritziak errespetatuz eta ikaskuntza-iturri gisa baloratzeko, eta helburu komuna lortzen laguntzea.	6

3.2.7. Erabaki metodologikoak eta didaktikoak

Definizioa

Metodologia da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren antolamenduari buruzko erabaki multzoa. Erabaki multzo horren barruan, eta beti inklusibotasunaren printzipioa kontuan hartuta, aldagai metodologiko hauek bil daitezke:

- edukien aukeraketari buruz hartutako erabakiak
- edukien antolaketa
- jarduera motak
- ikasleen taldekatzeak
- baliabideak eta materialak ²
- lekuen eta denboren antolaketa
- ebaluaziorako printzipioak eta prozedurak
- irakasleen eta ikasleen zeregina...

Halaber, metodologiak barne hartzen du erabilitako metodoen edo estrategia metodologikoen deskribapena: proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, zereginetan oinarritutakoa, *flipped classroom*, ludifikazioa, ikaskuntza kooperatiboa...

Ikasgelan gaitasunen ikuspegia ezartzea aldaketa metodologiko handia da, eta irakasleen eta ikasleen rolei eragiten diete, nagusiki. Ikasleak zeregin aktiboa hartzen du ikasketa-prozesuan, eta irakasleak bideratzaile edo bitartekari bihurtzen dira, hots, gidari edo laguntzaile. Azken finean, informazioa helaraztetik eta memorizatzetik, gaitasunak garatzera igarotzen da.

Kontrol-galderak

- Estrategia metodologikoak lagungarriak al dira zabaltzeko eta finkatzeko neurriak hartzeko nahiz egokitzapenak egiteko?
- Jardueren antolaketak hainbat laguntza motatarako aukera ematen al du (biren arteko tutoretza, beste heldu batzuen esku hartzea, material osagarrien erabilera, askotariko taldekatzeak...)?

² Gidaliburu honen 3.2.8. atalean garatzen da.

- Zenbait taldekatze mota (talde-lana, banakako lana...) erabiltzen al dira jardueretan?
- Ikasgelan ikaskuntza sustatzen duen giroa bultzatzeko prozesuak arautu al dira (motibazioa, parte-hartzea, autoerregulazioa, konfiantza, aintzat hartua eta bere ikaskuntzaren protagonista sentitzea...)?
- Sortzen al dira autoerregulazio-egoerak, bultzatzen al da ikasleek ebaluazio-prozesuan parte hartzea?
- Akatsak ikaskuntzarako aukeratzat hartzen al dira?
- Erabaki metodologikoen:
 - Sustatzen al dute ikasitakoa ahoz edo idatziz komunikatzea?
 - Sustatzen al dute ikasitakoa zenbait modutan irudikatzea?
 - Sustatzen al dute arloen/irakasgaien arteko lotura? Erabiltzen al dituzte metodologia orokorrak edo diziplina arteko metodologiak?
 - Bultzatzen al dute ikasteko autonomia? Bultzatzen al dute ikasleek erabakiak hartzea?
 - Sustatzen al dute arazoak konpontzea, sormena, ikerketa, pentsamendu kritikoa, pentsamendu dibergentea...?
 - Bultzatzen al dute jakintza eraikitzeke berdinen arteko interakzioaz baliatzea?
 - Jardueren aukeraketa eta antolaketa koherentea al da planteamendu honekin?
 - Bultzatzen al dute era askotakoak diren eta euskarri desberdinetan dauden informazio-baliabideak eta -iturriak erabiltzea?
 - Bultzatzen al dute informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu integratu eta esanguratsuan erabiltzea?
 - Bultzatzen al dute espazioa hainbat modutan antolatzea (erabilera anitzeko guneak, aterik gabeko ikasgelak...)?
 - Sustatzen al dute espazioa eta denbora zenbait modutan antolatzea?
 - Sustatzen al dute prestakuntzako ebaluazioa?
- Programazioa koherentea al da, ikuspegi metodologikotik, talde beraren gainerako programazioekin?

LEHEN HEZKUNTZA. 6. maila
NATURA-ZIENTZIAK

Irakasleen eta ikasleen zeregina

Irakasleak. Irakasleek ikasleen gidari eta laguntzaile izan behar dute; hau da, ikasleari askotariko informazioa bilatzeko, aukeratzeko eta biltzeko prozesuan lagunduko dio, bai eta informazio hori ulertzeko prozesuan ere. Halaber, gainditu ditzaketen erronkak proposatu beharko dizkiete ikasleei, eta gainditzen laguntzeko prozesuak abiaraziko dituzte, betiere ikasleen interesak kontuan hartzen dituzten irakaskuntza-egoera irekien bidez. Gainera, arloari buruzko jarrera positiboaren garapena sustatuko dute irakasleek.

Ikasleak. Ikasleak beren ikasketa-prozesuaren protagonista izango dira; horrek esan nahi du prozesu hori erregulatzen ikasi behar dutela, zereginak planifikatuz eta hobetzeko alderdiak hautematen eta ebazten ikasiz. Ildo horretan, akatsa ikaskuntzarako aukeratzat hartu behar da.

Ikasle bakoitzak bere esperientziak, bere ikasteko modua eta bere zaletasunak ditu. Aniztasun horri arreta egokia emateko, hau proposatzen da:

- Laguntzako eta elkarlaneko giroa sortzea ikasgelan.
- Askotariko jarduerak eskaintzea.
- Ikasleei askotariko erabaki-mailatako jardueratan parte hartzeko aukera ematea.
- Ikasleak motibatzea, aurretik dituzten interes, esperientzia eta ezagutzetatik abiatuta.
- Hasiera, sintesia eta ondorioa dituzten jarduerak eskaintzea, ikasleen maila kontuan izanda.

Edukiak aukeratzeko eta antolatzeko irizpideak

Edukiak ikaskuntza-proiektuetan integratuta antolatuko dira. Edukiak aukeratzeko hainbat irizpide erabiliko dira. Hasiera batean, lehentasuna emango zaie oinarrizko gaitasunak garatzen eta Lehen Hezkuntzako helburu orokorrak lortzen laguntzen duten edukiei. Ondoren, informazioa ulertzeko eta interpretatzeko tresnak osatzen dituzten edukiak lehenetsiko dira, eta ez informazio-emate hutsa direnak.

Arloak adin horretako ikasleak galderak egitera eta horien erantzun baliagarriak bilatzera bultzatzen ditu. Erantzun horiek gaur egungo irizpide zientifikoekin bat etorri eta zientzia-ezagutzaren eraikuntza bultzatu behar dute.

Kontzeptuek, prozedurek eta jarrerek integratuta egon eta presentzia orekatua izan behar dute.

Jarduera motak

Gaitasuna mota hauetako jardueren bidez garatuko da: esperimentazioa, ikerketa, landa-lana, irteerak, bisitak, zuzeneko behaketa... Jardueretan garrantzi handia emango zaio informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeari. Jardueri zentzua emateko, unitateak edo proiektuak hurbileko testuinguruan kokatuko dira eta egunerokotasunari lotutako interesgune bat izango dute abiapuntutzat.

Metodologia ikerketakoa izango da; beraz, edukiak bizitza errealeko arazoan azterketaren eta irtenbide posiblearen inguruan antolatuko dira.

Ikasleen taldekapena

Nahiz eta une zehatz batzuetan ikasleek bakarkako lana egin beharko duten, orokorrean lana taldeka antolatuko da, arloaren berezko jardueren ezaugarriak kontuan izanda: ikerketa, informazioa bilatzea, elkarrizketa, eztabaida... Horretarako, irakasleek jarraibide zehatzak emango dizkiete ikasleei, proposatutako lanari ahalik eta errentagarritasun didaktiko handiena ateratzeko asmoz.

Hasieran, lana talde handitan egitea proposatuko da, motibazioa pizteko, aurretiko ezagutzak azaleratzeko eta lan-proiektua aurkezteko. Gainera, ikasleak elkarrekin arituko dira lanaren ondorioak egin behar dituztenean. Berezi ikaskuntza kooperatiboa sustatuko da eta hori modu egokian garatzeko egoerak planifikatuko dira.

Ebaluaziorako printzipioak eta prozedurak

Proposatzen den ebaluazio-motak autoerregulatzen irakastea du helburu. Beraz, ebaluazio mota hori lotuta dago ikaskuntzako helburu bat lortzeko jarduera planifikatzen jakiteko gaitasunarekin. Horretarako, ezinbestekoa da ikasleek alderdi hauek kontrolatzea:

- Egin dutenaren helburua, zergatia.
- Helburu hori lortzeko prozesua: urratsak, horien ordena eta plangintza.
- Zeregina betetzen ari diren ala ez jakiteko irizpideak.

Oinarrizko gaitasunen lorpen-maila ebaluazio-jardueren ardatza izango da. Kontzeptuzko edukiak osagarriak izango dira bai ebaluazioan bai kalifikazioan; ez dira lehentasunezkoak izango.

Ebaluazioaren atalean ebaluaziorako irizpideak eta tresnak zehaztuko dira.

Denboraren eta espazioaren kudeaketa

Ikaskuntzak errazteko, irteerak eta hurbileko ingurunea erabiliko dira, ikasgelaz eta ikastetxeko gunez gain.

Denbora: irakaskuntza-ikaskuntza prozesua gauzatzeko, sekuentzia didaktiko bakoitzaren garapenari beharrezko denbora emango zaio. Horretarako, garrantzitsua da ikasleak ere denbora kudeatzen eta optimizatzen ikastea, prozedura argiak eta zehatzak proposatuz, eskolak puntualtasunez hasiz eta, arau argien bidez, denbora galtzea saihestuz.

Espazioa: ikasgelan bi gune desberdinu daude:

- Ikasle guztientzako tokiak, talde txikitan (binaka edo launaka) banatzeko egokia.
- Berariazko tokiak:

Esperientzien txokoa: eguneroko bizitzako materialak dituen tokiak izango da. Bertan, ikasleak lanak autonomiaz gauza ditzake.

Proiektuen txokoa: Gune hau aukerakoa da. Beren lanak bukatu dituzten ikasleak toki horretara joan daitezke.

Arlo horretan ikastetxeko kanpoko tokiak garrantzitsuak dira, adibidez, naturarekin esperimenduak egiteko. Modu horretan, gune bat erabil daiteke eskolako baratze bat martxan jartzeko. Bestalde, herria, auzoa edo hiria ere interes handiko guneak dira. Irteerak eginez, ikasleak bere ingurunekeo bizimodua eta gizarte-harremanak ezagutzeko eta aztertzeke aukera dauka.

Espazioa modu dinamikoan eta malguan antolatuko da, aldatzeko aukerarekin, ikasleen arteko harremanak eta elkarrekintza indartzeko asmoz. Bestalde, ikasleen ekoizpenak erakusgai jarriko dira, eta horretarako lankidetzarako eta taldearen kohesiorako gune bat eraikiko da. Ikasgelaz gain, ikastetxeko beste guneak erabiliko dira: liburutegia, erabilera anitzeko gela... Eta zentrotik kanpokoak ere bai, irteerak egiteko, antzerki-emanaldietara joateko, erakusketak bisitatzeko...

METODOLOGIAREN ABIDIBEA
(DBH)

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA. 4. maila
MATEMATIKA

Matematiketan, arazoak gaitasunen ikuspegitik ebaztearen ingurukoa izan behar da, bereziki, metodologia, eta hainbat printzipio kontuan hartu behar ditu:

- Komunikazioa zaintzea, gauzak interesez kontatuz, alderdi funtzionalak ezagutzaren helburura bideratuz.
- Ikerkuntza eta metodo zientifikoaren erabilera sustatzen duten eredu didaktikoak erabiltzea.
- Egoera matematikoak testuinguru egoki eta esanguratsuetan lantzea.
- Jarduerak aurkeztea zehaztasunetik abstraktutasunera eta alderdi globaletatik zehaztetara doan bidea errespetatuz.
- Galdetzeko teknika menderatzea, betiere ikasleen hizkeratik abiatuta, ikasleak berak bere pentsamendua eraiki dezan.
- Jakin-mina sustatzea, ikasleentzat motibatzaileak diren egoerak proposatuz.
- Jakintza matematikoaren eskualdatzea eta aplikazioa askotariko alorretan zabaltzea: zientifikoak, naturari buruzkoak, pertsonalak, sozialak, etab. Ahaztu gabe azken helburua garapen pertsonala dela.
- Matematika ikasteko prozesua jakitera, sentitzera eta maitatzera bideratzea.
- Abstrakzio-planoak kontu handiz graduatzeaz arduratzea.
- Irakasteko garaian, ikaslearen jarduera sortzailea eta aurkitzailea gidatzea eta autozuzenketa sustatzea.
- Bakarkako lana eta taldekoa txandakatzea.
- Ikasleari entzutea eta bere parte-hartzea bultzatzea.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak modu egokian eta kritikoan erabiltzea.
- Zenbait adierazpide (hitzezkoa, grafikoa, sinbolikoa) erabil daitezten sustatzea, bai eta adierazpide batetik beste batera transferentziak egin daitezten ere.
- Konfiantza-giroa sortzea, ikasleek beren pentsamendua askatasunez adieraz dezaten.

Agerikoa da metodologiarekin lotuta hartzen diren erabakiek ikastetxearen errealitaterako egokiak izan behar dutela, eta guztiek ikasleen aniztasuna kontuan hartu behar dutela. Erabakiek eragina dute zenbait alderditan:

Irakasleen eta ikasleen zeregina

Ikaslea da hezkuntza- eta ikaskuntza-prozesuaren protagonista nagusia. Beraz, modu aktiboan parte hartu behar du ikaskuntzan, eta, horretarako, ikaskuntza-egoerek parte-hartze aktiboa bultzatu behar dute eta ekimenez, sormenez, autonomiaz eta zehaztasun intelektualaz jokatzeko eskatu behar diete ikasleei. Metodologia hori gauzatzeko, irakasleek ikasleentzat egokiak diren matematikako jarduera funtzionalak aukeratu eta diseinatu beharko dituzte, diskurtso matematikoa hasten lagunduko diete ikasleei, eta diskurtso horretan bideratuko dituzte, gelan matematikarekin lotuta gertatzen diren harremanak kudeatuko dituzte, eta ikasleen pentsamendu matematikoa aztertuko dute. Hauek dira irakasleen beste zeregin batzuk: ikasleek egin beharreko lana sistematizatzea, haien ikaskuntza orientatzea eta bideratzea, lan- eta ikaskuntza-erritmo desberdinak errespetatzen dituzten jarduerak eta lanak ematea, ikasgelako lan-giroa zaintzea ikasleei lanak egitea errazteko, eta ebaluazio-prozesua eta -tresnak zehaztasunez azaltzea.

Edukiak antolatzeko irizpideak

Unitate bakoitzeko edukiak antolatzeko, eduki horiek curriculumeko eduki-blokeetatik aukeratuko dira, unitate didaktikoen barruan, alderdi funtzionalak beti aintzat hartuz. Beharrezkoa da oinarrizko edukiak eta bigarren mailako edukiak bereiztea, bai eta haien arteko loturak bereiztea ere, eta, ondoren, datozen ikaskuntzetarako oinarrizkoak diren edukiak aukeratu behar dira. Bestalde, edukiak aukeratzean, kontuan izan behar ditugu honako hauek: esperientzia gauzatuko den testuinguruaren ezaugarri espezifikoak, aurretiko ezagutzen eta ikasi beharreko edukien arteko lotura, eta zer ordenatan aurkeztuko diren sekuentziaren barruan.

Jarduera motak

Unitate didaktikoetan aurkeztu beharreko jarduerak askotarikoak dira. Hasieran, arazo-egoera bat sartuko da, unitatean aurrera egiteko aitzakia eta *leitmotiv* gisa, arazo-egoeraren ildo nagusi izango dena. Gero, era askotako jarduerak proposatuko dira; besteak beste, sarrera-jarduerak, garapen-jarduerak, finkatzeko jarduerak, eta zabaltzeko jarduerak. Hartara, ikasleen aniztasunari eta haien lan- eta ikaskuntza-eritmo desberdinei erantzun ahal izango zaie. Aipatutako metodologiari jarraikiz, arazo-egoera azaldu eta eztabaidatu ondoren, komeni da gai erraz eta orokorrekin hastea, eta, gero, alderdi espezifikoagoetan sakontzea. Hartara, ezagutza pixkanaka eta modu progresiboan finkatuko da.

Halaber, komeni da eguneroko testuinguruetatik datozen egoerak aurkeztea jardueretan. Horretarako, ikasleen interesguneak aurkitu behar dira, familiaren arlokoak nahiz arlo akademikokoak, eta ikergai dituzten jarduera horiek ikasten laguntzen dutela ikusarazi behar zaie ikasleei, ikaskuntza gaitasunen ingurukoa izan dadin. Proposatutako jarduerak honako ezaugarri hauek izango dituzte:

- Programatutako zereginaren eta ikasleen ezaugarrien arabera egokituko dira.
- Unitate didaktikoak sekuentziarekin lotutako arazo-egoera izeneko jarduera batekin hasiko dira, eta gero gaian sakonduko da.
- Sekuentziako lan-prozesuan zehar, ikasleek egin beharreko lanari buruz hausnartzeko jarduerak egongo dira.
- Azken emaitzak berrikusteko jarduerak egongo dira.
- Sekuentzia didaktikoen amaieran, zabaltzeko eta sakontzeko jarduerak egongo dira.
- Finkatzeko jarduerak proposatuko dira, ikasleen aniztasunari erantzuteko.
- Norberaren lana berrikusteko edo lan horri buruz hausnartzeko jarduera osagarriak proposatuko dira, hala badagokio.
- Jardueretako batzuk ebaluazio-jarduera gisa erabiliko dira.

Ikasleak taldekatzea

Banakako lana eta taldeko lana txandakatuko dira, eta bermatuko da ikasleek binaka edo hirunaka lan egingo dutela astean behin gutxienez, ahalmen, interes eta trebetasun desberdinak dituzten ikasleen arteko lankidetzaren sustatzeko. Unitate guztietan, eta, batez ere, hausnartzeko jardueretan, banaka nahiz taldeka egindako lana talde handian adierazteko uneak egongo dira.

Ebaluaziorako printzipioak eta prozedurak

Ikasleek barneratutako ezagutzak ebaluatzeak haien ezagutzak eta trebetasunak zein diren jakiteko aukera ematen digu. Hartara, kalifikazio bat jar diezaiekegu, eta, bereziki, ikasleen ikaskuntza-prozesua egokitu ere egokitu dezakegu. Gainera, ebaluazioak irakasleoi ere eragiten digu; izan ere, ikasleek egindako aurrerapenetatik ateratzen dugun informazioa lagungarri izan dakiguke, gure lanari buruzko pistak eta ebaluazioak ematen baitzikigu, beharrezko balitz, dagozkion aldaketak egiteko, bai unitate didaktikoan aurkeztutako jardueretan, bai erabilitako metodologian.

Espazioen eta denboren antolaketa

Saio gehienak ikasgelan egingo dira. Baliabide informatikoak ohiko ikasgelan erabiliko dira sistematikoki. Beraz, gelan egongo dira, behar direnean erabili ahal izateko.

Denborei dagokionez, matematikako bi saio elkartu eta, horrela, proiektuak modu sakonagoan lantzeko aukera dago.

Irakasleek behar adina denbora emango dute oinarrizko edukiak eta prozedurak aurkezten eta azaltzen.

3.2.8. Curriculuma garatzeko materialak eta baliabideak

Definizioa

Material didaktiko deritze ikasleei eta/edo irakasleei irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen plangintza eta/edo garapena eta/edo ebaluazioa egiteko lagungarriak izateko espresuki erabilitako mota guztietako materialei.

Ikasleek eta irakasleek eskura dituzten tresnak dira, eta modu malguan erabili behar dira, inguruneko baldintzetara eta ikasleen ezaugarrietara egokituz. Azken urteotan aldaketa nabarmena gertatzen ari da erabilitako materialetan, euskarri digitaleko material didaktikoek (objektu digitalak, hezkuntza-baliabide irekiak, errealitate areagotua, simulazioak, bideoak...) eta komunikazio eta interakzio didaktikoko plataformek duten garrantzi gero eta handiagoagatik.

Kontrol-galderak

- Egokiak al dira ikasleen oinarrizko gaitasunen garapenerako?
- Kontuan hartzen al dute genero-ikuspegia?
- Materialen aurkezpena ikasle guztientzat ulergarria al da? Kontuan hartzen al dira Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsalaren printzipioak?³
- Edukien aukeraketa eta antolaketa orekatua al dute (askotariko edukiak egotea, zeregina gauzatzeko duten garrantzia...)?
- Jardueren antolaketa gaitasunen garapenera egokituta al dago (proiektuak, zereginak...)?
- Hizkuntzen trataera integratua eta integrala bultzatzen al dute?
- Baliabide digitalak eta mediatikoak modu normalizatuan txertatzen al dituzte?
- Metakognizioa eta norberaren ikaskuntzari buruzko gogoeta bultzatzeko proposamenak egiten al dituzte?

³ <http://www.educadua.es/html/dualetic/dualetic.html>

- Orientabideen, prestakuntza- eta prozesu-ebaluazioen, ebaluazio diagnostikoen, indartzearen eta aniztasunari arreta ematearen inguruko proposamenak egiten al dituzte?

MATERIALAK ETA BALIABIDEAK,
ADIBIDEA (LH)

LEHEN HEZKUNTZA. 6. maila
NATURA-ZIENTZIAK

IKTen erabilerari dagokionez, probetxua aterako zaio arbel digitalaren eta ikasleen ordenagailuen erabilerari, hau kontuan hartuta:

- Informazioa bilatzeko jardueretan sarea erabiliko da.
- Gaiak eta lanak aurkeztean, txostenak idaztean eta proiektuen azken ekoizpenetan Open Office paketeko aplikazioak erabiliko dira.

Informazio-iturriei dagokienez, testu-liburuez gain, gelan eskuragarri egongo diren beste liburu batzuk, egunkariak, aldizkariak eta bideoak erabiliko dira. Gainera, eskola-liburutegiko baliabideak erabiliko dira.

Bestalde, alor honetan ezinbestekoa izango da laborategiko materialak, mikroskopia eta abar erabiltzea.

MATERIALAK ETA BALIABIDEAK,
ADIBIDEA (DBH)

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA. 4. maila
MATEMATIKA

Unitate didaktiko bakoitzeko baliabideak erabiliko dira nagusiki. Matematikako morroiak eta bereziki GeoGebra maiz erabiliko dira. Informazioaren bilaketa eta aukeraketa irakasleek aurretik hautatutako orrialdeetan egingo da, eta euskarri analogikoetako baliabideak ere erabiliko dira (dadoak, fitxak, etab.). Programazioan jasotzen ez den material osagarriren bat ekartzeko aukera emango zaie ikasleei.

4. Programazio didaktikoaren ebaluazioa

Programazio didaktikoa irakasle-taldearen berariazko tresna da curriculumeko arlo eta irakasgai bakoitza planifikatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko. Ikastetxearen Curriculum Proiektuarekin adostuta diseinatuta dago, eta curriculumak ikasleen ezaugarri espezifikoetara egokitzea ahalbidetzen du. Programazioa amaitutako produktua da, baina hobetu daitekeena. Diseinatutako programazioa praktikan jarri ondoren, ebaluatu egiten da, ikasleentzat diseinatutako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen kalitatea bere aniztasunean aztertzeko, eta berriz formulatu edo hobetu behar den ikusteko.

Horregatik, funtsezkoa da programazioaren oinarria azpimarratzen duten hainbat galderi erantzutea: egokia al da ikasturte horretan eta arlo edo irakasgai horretan ikaskuntza sustatzeko? Nahikoa zehatza al da irakasleen lana gidatzeko? Beharrezko aldaketak ezartzea ahalbidetzen al du? Malgua al da? Proposatzen duena bideragarria al da? Galdera hauek erantzuteko ez da ikasturte amaiera arte itxaron behar; aldiz, beharrezko aldaketak dagokien unean egin behar dira, etengabeko ebaluazioaren bidez. Ebaluazio hori egiteko xedez, araudiak proposatutako adierazleak garatuko dira.

4.1. Ikasturteko ebaluazio-emaitzak, arlo edo irakasgaietan

Programazio didaktikoa ebaluatzeko irizpide bat ikasleen ikaskuntzan izandako eragina da, lortutako emaitzen bitartez. Beharrezkoa da azterketa ebaluazio-saio bakoitzean egitea, gutxienez. Lehenengo saioan, lortutako emaitzak aurreko urtekoekin alderatu ahalko dira, eta, hurrengoetan, aurreko ebaluazioetan lortutakoekin. Horrek hainbat alderdi ezagutzea ahalbidetuko du: ea eskakizunak ongi doitu diren, ea emaitzek itxaropen positiboak sortzen dituzten ikasleengan... Azterketa horri esker erabaki ahalko da ea beharrezkoa den aldaketak egitea eta programazioaren zenbait elementu egokitzea.

Ulertzen dugu ebaluazioaren emaitzek barne hartzen dutela zeharkako oinarrizko gaitasun guztien eta erlazionatutako oinarrizko diziplina-gaitasunen lorpena; horregatik, funtsezkoa da azterketa hori emaitzaren ikusmolde zabaletik egitea.

Bestalde, ikasturte berean hainbat talde badaude, horien emaitzak alderatu beharko lirateke, batez ere oso desberdinak badira.

4.2. Aldagai metodologikoen koherentzia eta egokitasuna

Irakasle-taldeak bere buruari galdetu beharko dio ea hartutako erabaki metodologikoak bat datozen ikasleen gaitasunak garatzen dituzten ikasketa-prozesuen diseinuarekin. Halaber, programazioaren oinarrizko ebaluazio-irizpideetako bat da berrikustea erabaki metodologiko horiek egokiak diren eta horiek praktikan jartzeak zer irismen duen. Azterketa hori beti ikasle-talde bakoitzarekin eta ikastetxearen beste testuinguru-aldagai batzuekin loturan egin behar da.

4.3. Ikasgelako eta ikastetxeko giroaren hobekuntzan metodologiak izandako eragina

Funtsezkoa da arlo eta irakasgai bakoitzeko planteamendu metodologikoak aztertzea eta ikasgelako eta ikastetxeko giroan duten eragina ikertzea.

Ikaskuntza egon dadin, beharrezkoa da bizikidetzako eta laneko giro egokia egotea: elkarrenganako errespetua, ikasgelan garatzen ari denarekiko interesa mantentzea, partekatutako helburuak... Giro hori lortzeko, ikasgelako kudeaketa-planteamenduek partaidetzakoak eta demokratikoak izan behar dute, eta irakasleen ekintzak ikasleen ikasten jarraitzeko interesa sustatu, piztu eta indartu behar du. Planteamendu horiek ikastetxean adostuta egon behar dute, eta Hezkuntza Proiektuan eta Curriculum Proiektuan agertu behar dira.

Eskola aldatu nahi bada, hezkuntza-ingurune erreal, aberats eta iradokitzaileak diseinatu behar dira, zeinak ikasleak benetako jardueretan murgilduko dituzten, beren ezagutzak praktikan jarri eta berriak sortu ahal izan ditzaten, eta elkarrekin bizitzen eta taldean lan egiten ikasi ahal izan dezaten. Testuinguru metodologiko horretan, programazio didaktikoa kanpoko kontrol burokratiko eta mekanikoa izatetik kide anitzeko prozesu konplexuagoa izatera pasatzen da, hezkuntzako errealitatea ezagutzeko eta horri buruz gogoeta egiteko. Irakaskuntza-plangintza hobekuntzako proiektutan partekatzen da, hots, praktikan eta praktikari buruzko

gogoetaren bidezko ikaskuntza-tresna modura ulertutako programazio eta ebaluazioetan.

Kontrol-galderak

- Programazio didaktikoa bat al dator ikastetxeko Curriculum Proiektuarekin eta Hezkuntza Proiektuarekin? Curriculuma ikasleen ezaugarri espezifikoetara egokitzen al da?
- Aurreikusten al da programazioa edo programazioaren elementu batzuk berrikusteko edo egokitzeko unerik?
- Ikasleen ikaskuntzaren emaitzek bermatzen al dute proposatutako eta garatutako programazioa?
- Arloa edo irakasgai bakoitzaren ebaluazioaren emaitzek kontuan hartzen al dute zeharkako oinarrizko gaitasun guztien eta erlazionatutako oinarrizko diziplina-gaitasunen lorpena?
- Ikasleen ebaluazioaren emaitzak espero direnak ez direnean, erabakiak hartzen al dira?
- Irakasle-taldeak baloratu al du aldagai metodologikoen artean koherentzia ote dagoen?
- Zenbateraino jarri dira praktikan programazio didaktikoan islatutako erabaki metodologikoak?
- Ikasgelako giroak errazten al du ikasleek beste ikasleekin eta irakasleekin duten interakzioa? Eta sustatzen al du ikaskuntza autonomia eta ikasleek beren gaitasunak garatzea?
- Programazio didaktikoaren azterketak laguntzen al die irakasleei prestakuntzako beharrak hautematen eta beren lanean hobekuntzak proposatzen?
- Gogoeta hori berariazko dokumentu batean jasotzen al da?



5. Bibliografia

ANTÚNEZ MARCOS, S. et al. (1992). *Del Proyecto Educativo a la Programación de Aula*. Bartzelona: GRAÓ argitaletxea.

BEANE, J.A. (2005). *La integración del currículo*. Madril: Morata argitaletxea.

BERRITZEGUNE NAGUSIA (2016-2017). *Heziberri 2020. Guías e instrumentos de aplicación en el aula*. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. http://heziberri.berritzegunenagusia.eus/heziberri_es/ (2017ko ekainaren 2an kontsultatua).

CAST (Center for Applied Special Technology) (2011). *Universal Design for Learning guidelines version 2.0*. Wakefield, MA: Author. Gaztelaniara itzulpena, 2.0 bertsioa (2013): Alba Pastor, C., Sánchez Hípola, P., Sánchez Serrano, J. M. eta Zubillaga del Río, A. *Pautas sobre el Diseño Universal para el Aprendizaje (DUA)*. Testu osoa (2.0 bertsioa). http://www.udlcenter.org/sites/udlcenter.org/files/UDL_Guidelines_v2.0-full_espanol.docx (2017ko maiatzaren 24an kontsultatua).

COLL SALVADOR, C. (2006). Lo básico en la educación básica. Reflexiones en torno a la revisión y actualización del currículo de la Educación Básica. *Revista Electrónica de Investigación Educativa*, 8 (1), 2011ko ekainaren 13an kontsultatua, hemen: <http://redie.uabc.mx/vol8no1/contenido-coll.html>

EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA, HIZKUNTZA-POLITIKA ETA KULTURA SAILA (2016). 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 9. zenbakia, 2016ko urtarrilaren 15ekoa.

ESCAMILLA GONZÁLEZ, A. (2009). *Las competencias en la programación de aula (Vol. I): Infantil y primaria (3-12 años)*. Bartzelona: GRAÓ argitaletxea.

ESCAMILLA GONZÁLEZ, A. (2011). *Las competencias en la programación de aula (Vol. II): Educación secundaria (12-18 años)*. Bartzelona: GRAÓ argitaletxea.

GIMENO SACRISTÁN, J. (2008). Diez tesis sobre la aparente utilidad de las competencias en educación. In J. GIMENO SACRISTÁN (Bild.). *Educación por competencias, ¿qué hay de nuevo?* (15.-58. or.). Madril: Morata argitaletxea.

LÓPEZ GOÑI, I. eta GOÑI ZABALA, J.M. (2015). *Hacia un curriculum guiado por las competencias. Propuestas para la acción*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

MOYA OTERO, J. eta LUENGO HORCAJO, F. (2010). La concreción curricular de las competencias básicas: un currículo adaptativo e integrado. *CEE. Participación Educativa*, 15, 127.-141.

ORTEGA OSUNA, J.L. eta VÁZQUEZ FERNÁNDEZ, P. (2012). *Competencias básicas. Desarrollo y evaluación en Educación Primaria*. Madril: Wolters Kluwer.

ORTEGA OSUNA, J.L. eta VÁZQUEZ FERNÁNDEZ, P. (2012). *Competencias básicas. Desarrollo y evaluación en Educación Secundaria Obligatoria*. Madril: Wolters Kluwer.

PÉREZ GÓMEZ, A. (2007): *La naturaleza de las competencias básicas y sus aplicaciones pedagógicas*. Cuadernos de Educación de Cantabria, 1. Santander: Cantabriako Gobernuaren Hezkuntza Saila.

PÉREZ GÓMEZ, Á. (2008). ¿Competencias o pensamiento práctico? La construcción de los significados de representación y acción, En J. Gimeno Sacristán (Bild.). *Educación por competencias ¿qué hay de nuevo?* (59.-102. or.). Madril: Morata argitaletxea.

I. ERANSKINA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILOA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

Urteko/ikasmailako programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>		kodea: <i>código:</i>	
etapa: <i>etapa:</i>		zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	
arloan/irakasgaia: <i>área / materia:</i>			
osatutako arloak/irakasgaiak <i>áreas/materias integradas</i>			
diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares</i> <i>básicas asociadas</i>			
irakasleak: <i>profesorado:</i>		ikasturtea: <i>curso:</i>	

Zeharkako konpetentziak / *Competencias transversales:*

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>

ARAZO EGOERA [Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguraren daturik errelenbanteenak agertuko dira.].

SITUACIÓN PROBLEMA [Incluirá los datos relevantes del contexto, el problema y la tarea final de cada una de las situaciones.].

- 1. arazo egoera / Situación problema 1

- 2. arazo egoera / Situación problema 2

- 3. arazo egoera / Situación problema 3

- ...

-

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

- 1. unitate didaktikoa / Unidad didáctica 1
1. egoera arazoa garatzen du / Desarrolla la 1ª situación

- 2. unitate didaktikoa / Unidad didáctica 2
2. egoera arazoa garatzen du / Desarrolla la 2ª situación

- 3. unitate didaktikoa / Unidad didáctica 3
- 3. egoera arazoa garatzen du / Desarrolla la 3ª situación

- ...
- ...
- ...

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-irizpide bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada criterio de evaluación].</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupezio-sistema...].</p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	

OHARRAK / OBSERVACIONES

II. ERANSKINA
UNITATE DIDAKTIKOA ARAZO-EGOERA BATETIK ABIATUTA
PROGRAMATZEKO TXANTILOIA

Irakasgaia:
Gaia:
Maila:
Saioak:
Proposamenaren justifikazioa:
Arazo-egoera: A. Testuingurua: B. Arazoa: C. Helburua:
Zeregina:
Oinarrizko gaitasunak: A. Zeharkakoak: B. Diziplinari dagozkionak:
Helburu didaktikoak:
Edukiak:
Jardueren sekuentzia: A. Lehen fasea: B. Garapen-fasea: C. Aplikazio- eta komunikazio-fasea: D. Orokortzea eta transferentzia:
Ebaluazioa: A. Adierazleak: B. Tresnak:

III. ERANSKINA

UNITATE DIDAKTIKOA ARAZO-EGOERA BATETIK ABIATUTA PROGRAMATZEAREN ADIBIDEA

Komiki bat egingo dugu

Irakasgaia(k): Gaztelania eta literatura, eta arte-hezkuntza	
Gaia: Narrazio-testuak, zehazki komikia	
Maila: Lehen hezkuntzako 5. maila	
Saioak: 12	
Proposamenaren justifikazioa: Istorioak kontatzea hizkuntza-komunikazioaren oinarrian dagoen jardueretako bat da. Pertsonak jarduten duten testuinguru soziokultural gehienek parte dira kontakizunak. Gainera, testuak eta irudiak bateratzen dituzten kontakizun mistoek (komikiak, telesailak, filmak...) geroz eta presentzia handiagoa dute ikasleen bizitzan. Horregatik, beharrezkoa da berariazko trebetasunak garatzea hainbat kode nahasten dituzten testu-genero horiek ulertzeko.	
<p>Arazo-egoera:</p> <p>a) Testuingurua: Auzoko liburutegian uholdeak egon dira eta haurrentzako irakurketagunea hondatuta geratu da. Kalteak konpondu nahian ari dira, baina lan luze eta garestia izango da. Egoera horrela dagoen bitartean, auzoko haurrek ezingo dute liburutegian irakurri, ez baitaude beren adinerako egokiak diren materialak. Liburutegiko arduradunek ikastetxeei laguntza eskatu diete egoera hori konpontzeko.</p> <p>b) Arazoa: Zer egin dezakegu laguntzeko gure gelan? Auzoko liburutegirako testuren bat egiteko gai al gara?</p> <p>c) Helburua: Literatura-alorretik hurbileko ikus-entzunezko testuak ulertzea eta jarrera kritikoaz ebaluatzea, bai eta ekoiztea ere, hala analogikoak nola digitalak, gizarte-helburu bat lortzeko.</p>	
<p>Zeregina:</p> <p>Hainbat gairi buruzko komikiak egitea paperean edo tresna digital bat erabiliz, udal-liburutegiari emateko.</p>	
<p>Oinarrizko gaitasunak:</p> <p>A. Zeharkakoak:</p> <p> Hitzezko, hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna</p> <p> Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna</p> <p> Elkarbizitzarako gaitasuna</p> <p> Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako gaitasuna</p> <p> Izaten ikasteko gaitasuna</p> <p>B. Diziplina-arlokoak:</p> <p> Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna</p> <p> Arterako gaitasuna</p>	<p>Jarduerak: 7, 8, 10, 11, 13 eta 15</p> <p>1, 2, 7, 9, 10, 11, 12, 14, 16 eta 17. jarduerak</p> <p>9, 14 eta 15. jarduerak</p> <p>1, 2, 9, 10, 11, 12 eta 15. jarduerak</p> <p>2 eta 17. jarduerak</p> <p>Jarduera guztiak</p> <p>Jarduerak: 11, 13 eta 16</p>

Helburu didaktikoak:

- ✓ Narrazio-testuen aniztasuna ezagutzea
- ✓ Komiki baten ezaugarri nagusiak ezagutzea
- ✓ Narrazio-testuen edukia laburtzea
- ✓ IKTak eraginkortasunez erabiltzea informazioa aukeratzeko
- ✓ Generoaren arauen arabera komiki bat egitea
- ✓ Jarduerak egitean eraginkortasunez laguntzea
- ✓ Erabakiak hartzeko eta ikasketa-prozesuari buruzko gogoeta egiteko gaitasuna garatzea
- ✓ Norberaren eta besteen testuak eraginkortasunez berrikustea

Edukiak:

- ✓ Hainbat narrazio-testu irakurtzea
- ✓ Laburpen egokiak egitea
- ✓ Narrazio-testuak konparatzea eta aztertzea
- ✓ Idatzizko narrazio-testuak testu bisual bihurtzea
- ✓ Komiki baten narrazio-elementuak planifikatzea
- ✓ Komiki baten elementu grafikoak planifikatzea
- ✓ Komiki bat egitea
- ✓ Komikia egiteko IKTak eraginkortasunez erabiltzea
- ✓ Ikaskuntzari buruzko hausnarketarako estrategiak erabiltzea
- ✓ Komikiaren ezaugarri nagusiak
- ✓ Parte-hartze aktiboa izatea talde-lanean
- ✓ Jarrera positiboa izatea egindako lanaren berrikuspenaren aurrean

Jardueren sekuentzia:

- A. Lehen fasea: 1, 2 eta 3. jarduerak
- B. Garapen-fasea: 4, 5, 6, 7, 8 eta 9. jarduerak
- C. Aplikazio- eta komunikazio-fasea: 10, 11, 12, 13, 14 eta 15. jarduerak
- D. Orokortzea eta transferentzia: 16 eta 17. jarduerak

Ebaluazioa:

A. Adierazleak:

- ✓ Askotariko narrazio-testuak ezagutzen ditu.
- ✓ Komiki baten oinarritzko ezaugarriak ezagutzen eta bere ekoizpenean erabiltzen ditu.
- ✓ Narrazio baten oinarritzko elementuak laburbiltzen ditu.
- ✓ Istorio oso bat kontatzen du komiki bidez.
- ✓ Bunbuiloak eta metafora bisualak egokiro erabiltzen ditu bere komikian.
- ✓ Kontatutako istorioari egokitutako irudiak aukeratzen eta egiten ditu.
- ✓ Bere testuak eta besterenak modu gidatuan eta lankidetzan berrikusten ditu.
- ✓ Parte-hartze aktiboa du talde-lanean.

B. Tresnak:

- Lana ebaluatzeko errubrika: 2. jarduera
- Koebaluatzeko txantiloia: 9 eta 14. jarduerak
- Prozesua ebaluatzeko txantiloia: 17. jarduera
- Integrazio-egoera: 16. jarduera

ARGIA

Irakasgaia: FISIKA ETA KIMIKA											
Gaia: ARGIA											
Maila: DBHko 2. maila											
Saioak: 12											
<p>Proposamenaren justifikazioa:</p> <p>Argiak eta argiarekin lotutako gaiak garrantzi izugarri handia dute gaur egungo gizartean, eguneroko bizitzan aplikazio ugari dituztelako: komunikazioetan, osasunean, industrian, irudian eta abarretan. Horrek, gainera, eguneroko fenomeno asko azaltzeko aukera ere ematen du.</p> <p>Izan ere, ikasleen inguruko eguneroko elementuak dira argia eta fenomeno optiko bakunak. Beti harrিতa uzten gaituen eguneroko fenomeno natural bat hartuko dugu abiapuntu, hain zuzen: ostadarraren eraketa. Fenomeno hori oinarri hartuta, argiari buruzko zenbait gai planteatuko ditugu, eta horiek ikasleen interesa pizteko ez ezik, argiari buruz aurretik zer ideia dituzten kontuan edukitzeko ere izango zaizkigu baliagarri, ikasleek etapa honetan izan ohi dituzten akatsak argiaren hedapen eta izaerarekin baitaude lotuta.</p>											
<p>Arazo-egoera:</p> <p>a) Testuingurua: Fenomeno fisiko guztietatik argiarekin lotutakoak dira ziur aski zirrargarriena eta jakin-min handiena eragiten dutenak. Ostadarra agertzeak fantasia eta sineskeria asko eragiten ditu. Ostadarrak misterio eta edertasunagatik esanahi berezia izan du mendeetan zehar. Fenomeno atmosferikoen arloan sartzen da, gainera, eta fenomeno horiek esplikaziorik gabekoak izan dira beti pertsonentzat, naturaz gaindikoaren zein herri-sinesmenen unibertsoaren barrukoak, hortaz. XXI. mendean egonik ere, superstizioen sinesmena oso errotuta dago oraindik. Zientziak horrelakoen faltsutasuna frogatzen laguntzen digu, baita fenomeno natural horri azalpen erraza ematen ere.</p> <p>b) Arazoa: Zer da ostadarra? Nola sortzen da ostadarra?</p> <p>c) Helburua: Nork bere iritzia osatzea, zehaztasunez adieraztea eta superstizioen kontrako argudioak ematea ezagutza zientifikoa oinarri hartuta.</p>											
<p>Zeregina:</p> <p>Ostadarraren eraketari buruzko ikerketa dokumentala eta aurkezpen digitala egitea.</p>											
<p>Oinarrizko gaitasunak:</p> <p>A. Zeharkakoak:</p> <table border="0"> <tr> <td>Hitzezko, hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna</td> <td>Jarduerak: 5.J., 6.J., 7.J., 9.J., 10.J., 14.J., 17.J., 20.J., 21.J., 22.J., 24.J., 25.J., 26.J., 27.J., 30.J., 31.J., 32.J., 33.J., 34.J., 38.J.</td> </tr> <tr> <td>Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna</td> <td>Jarduerak: 1.J., 2.J., 6.J., 7.J., 9.J., 10.J., 13.J., 17.J., 19.J., 23.J., 25.J., 27.J., 28.J., 30.J., 32.J., 33.J., 34.J., 38.J.</td> </tr> <tr> <td>Elkarbizitzarako gaitasuna</td> <td>Jarduerak: 7.J., 8.J., 10.J., 14.J., 34.J.</td> </tr> <tr> <td>Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako gaitasuna</td> <td>Jarduerak: 8.J., 20.J., 24.J., 34.J., 38.J.</td> </tr> <tr> <td>Izaten ikasteko gaitasuna</td> <td>Jarduerak: 2.J., 6.J., 13.J., 23.J., 25.J., 32.J., 35.J.; 36.J., 37.J., 39.J.</td> </tr> </table>		Hitzezko, hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna	Jarduerak: 5.J., 6.J., 7.J., 9.J., 10.J., 14.J., 17.J., 20.J., 21.J., 22.J., 24.J., 25.J., 26.J., 27.J., 30.J., 31.J., 32.J., 33.J., 34.J., 38.J.	Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna	Jarduerak: 1.J., 2.J., 6.J., 7.J., 9.J., 10.J., 13.J., 17.J., 19.J., 23.J., 25.J., 27.J., 28.J., 30.J., 32.J., 33.J., 34.J., 38.J.	Elkarbizitzarako gaitasuna	Jarduerak: 7.J., 8.J., 10.J., 14.J., 34.J.	Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako gaitasuna	Jarduerak: 8.J., 20.J., 24.J., 34.J., 38.J.	Izaten ikasteko gaitasuna	Jarduerak: 2.J., 6.J., 13.J., 23.J., 25.J., 32.J., 35.J.; 36.J., 37.J., 39.J.
Hitzezko, hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna	Jarduerak: 5.J., 6.J., 7.J., 9.J., 10.J., 14.J., 17.J., 20.J., 21.J., 22.J., 24.J., 25.J., 26.J., 27.J., 30.J., 31.J., 32.J., 33.J., 34.J., 38.J.										
Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna	Jarduerak: 1.J., 2.J., 6.J., 7.J., 9.J., 10.J., 13.J., 17.J., 19.J., 23.J., 25.J., 27.J., 28.J., 30.J., 32.J., 33.J., 34.J., 38.J.										
Elkarbizitzarako gaitasuna	Jarduerak: 7.J., 8.J., 10.J., 14.J., 34.J.										
Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako gaitasuna	Jarduerak: 8.J., 20.J., 24.J., 34.J., 38.J.										
Izaten ikasteko gaitasuna	Jarduerak: 2.J., 6.J., 13.J., 23.J., 25.J., 32.J., 35.J.; 36.J., 37.J., 39.J.										

B. Diziplinari dagozkionak:

Zientziarako gaitasuna	Jarduerak: 3.J., 4.J., 5.J., 7.J., 8.J., 9.J., 10.J., 11.J., 12.J., 14.J., 15.J., 16.J., 17.J., 18.J., 19.J., 20.J., 21.J., 22.J., 24.J., 26.J., 27.J., 28.J., 29.J., 30.J., 31.J., 33.J., 34.J., 37.J., 38.J.
Matematikarako konpetentzia	Jarduerak: 11.J., 12.J., 29.J.
Kultura humanistiko eta artistikorako konpetentzia	Jarduerak: 1.J., 14.J., 15.J., 16.J., 17.J., 18.J., 19.J.

Helburu didaktikoak:

1. Argi-iturri primarioak eta sekundarioak bereiztea.
2. Argia espazioan lerro zuzenean nola hedatzen den azaltzea
3. Hutsean hedatzeko abiadura aplikatzea ariketa batzuen ebazpenean
4. Itzalen, argiantzen eta eklipseen sorrera argiaren hedapen zuzenaren ondorio gisa azaltzea
5. Ulertzea argirik ez duten objektuak ikusten ditugula haietan islatutako argia gure begietara iristen delako
6. Bi medioren arteko banaketa-gainazalera iristen denean argiak zer norabide-aldaketa izango dituen aurreikustea
7. Ispiluetan irudiak nola eratzen diren azaltzea islapenaren legea oinarri hartuta
8. Naturaren fenomeno batzuk azaltzea argiaren dispertsioaren fenomenoan oinarriturik
9. Atazen banaketa taldeko lanaren berezkozkat onartzea
10. Emaitzak askotariko teknikak zein zientzia-hizkuntza erabiliz jakinaraztea
11. Pentsamendu kritikoa eskuratzea eta argiaren efektuekin lotutako gezurrezko superstizioen eta sinesmenen kontrako argudioak ematea
12. Ezagutza zientifikoak superstizioei aurre egiteko zer garrantzi duen jabetzea

Edukiak:

- Argia espazioan hedatzen den entitate gisa tratatzea. Objektuak argi-iturri sekundario gisa.
- Argiaren hedapen zuzena. Bere ezaugarri dinamikoak. Argia agerian jartzeko esperientzia errazak egiteko egoerak eta teknikak identifikatzeko jarraibideak. Hutsean hedatzeko abiadura.
- Itzalen eta eklipseen eraketa.
- Ispiluetan irudian islapen bidez eratzea.
- Irudien eraketa errefrakzioan.
- Argiaren dispertsioa.
- Naturaren fenomenoak ezagutzeko jakin-mina eta interesa.
- Egoera arazotsuen aurrean uste egiaztagarriak edota hipotesiak emateko irizpideak.
- Argiaren ezaugarri buruz laborategian esperientziak egiteko arauak eta teknikak.
- Aldaketa optikoei lotutako deskribapenak eta azalpenak egiteko arauak.
- Testuetan, ikus-entzunezko materialetan eta multimedien materialetan ideiak identifikatzeko eta hautemateko teknikak.
- Datuak, ideiak eta harremanak hainbat euskarritan bilatzeko orduan zenbait informazio-iturri erabiltzeko irizpideak.
- Norberaren lanean gogor saiatzea, eta atazetan jarrera aktiboa eta arduratsua izatea.

- Zehatza izatea hizkuntza zientifikoa erabiltzean eta horren adierazpenak argiak eta antolatuak izaten ahalegintzea.
- Arauak zehaztea taldeko lana egiteko eta aztertutako gaien inguruan sortzen diren eztabaidetan parte hartzeko.
- Talde lana egiteko prest egotea, zereginetan lankidetzan eta partaidetzan arduratsuak erakutsiz eta pertsonen arteko desberdintasunak errespetatuz.
- Jarduera zientifikoa lanean ari diren pertsonen ikuspegi estereotipatuak gainditzea.
- Izpi-diagramak erabiltzea itzalen eta argiantzen eraketa ulertzeko.
- Argia hedatzeko abiadurari buruzko ariketak ebatzea.
- Argiaren dispertsioari buruzko ikerketa dokumental txikia egitea.

Jardueren sekuentzia:

- | | |
|--------------------------------------|---|
| A. Lehen fasea: | 1.J., 2.J. |
| B. Garapen-fasea: | 3.J., 4.J., 5.J., 6.J., 7.J., 8.J., 9.J., 10.J.,
11.J., 12.J., 13.J., 14.J., 15.J., 16.J.,
17.J., 18.J., 19.J., 20.J., 21.J., 22.J.,
23.J., 24.J., 25.J., 26.J., 27.J., 28.J.,
29.J., 30.J., 31.J., 32.J., 35.J., 36.J.,
37.J. |
| C. Aplikazio- eta komunikazio-fasea: | 33.J., 34.J. |
| D. Orokortzea eta transferentzia: | 38.J. |

Ebaluazioa:

- A. Adierazleak:
- Fenomeno naturalak azaltzen ditu argiaren ezaugarriei buruzko ezagutzak –islapena eta errefrakzioa adibidez– erabiliz.
 - Argia hedatzeko abiadurari buruzko ariketak ebatzen ditu.
 - Itzalen, argiantzen eta eklipseen eraketa azaltzen du.
 - Taldean argiarekin lotutako ohar eta esperientzia errazak egiten ditu.
 - Argiaren deskonposizioa azaltzen du eta argiaren dispertsio-fenomenoarekin lotutako kontuak ebatzen ditu.
 - Zereginaren plangintzan parte hartzen du, esleitutako lana onartzen, eta taldean hartutako erabakiekin bat dator.
 - Ahozko azalpenetan eta idatzizko txostenetan argitasuna, ordena eta zehaztasuna agertzen ditu.
- B. Tresnak:
- Aurretiko ideiak antzemateko jarduera: 1.J.
 - Autoebaluaziorako galdetegia: 36.J., 37.J., 39.J.
 - Koebaluazioko galdetegia: A.35, A.39
 - Ikaskuntza-kontratua (Errefortzua)
 - Irakasleek erabakitako beste edozein.

IV. ERANSKINA: PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA EBALUATZEKO TXANTILIOIA

Arloa/irakasgaia: _____

Programazio didaktikoa berrikusteko datak:

1. ebaluazioa Data	2. ebaluazioa Data	3. ebaluazioa Data	...	Ikasturte- amaiera Data

EBALUAZIO- ADIERAZLEAK	Kurtsoan zehar (etengabeko ebaluazioa)	Kurtso amaieran (azken ebaluazioa)
1) Ikasturteko ebaluazio-emaitzak, arlo edo irakasgaietan	Ez badira nahi ziren emaitzak lortu, egokitzapen hauek proposatzen dira: - ... - ... - ...	<i>Hurrengo kurtsoko programazio didaktikoan hobetzeko proposamenak:</i>
2) Aldagai metodologikoen koherentzia eta egokitasuna	Aldagai metodologikoak koherenteak edo egokiak ez direla ebaluatzen bada, egokitzapen hauek proposatzen dira: - ... - ... - ...	<i>Hurrengo kurtsoko programazio didaktikoan hobetzeko proposamenak:</i>
3) Ikasgelako eta ikastetxeko giroaren hobekuntzan metodologiak izandako eragina	Ebaluatzen bada metodologiak ez duela ikasgelako eta ikastetxeko giroa hobetzen laguntzen, egokitzapen hauek proposatzen dira: - ... - ... - ...	<i>Hurrengo kurtsoko programazio didaktikoan hobetzeko proposamenak:</i>

Sinadura (arlo/irakasgai hau ematen duten irakasleak)

V. ERANSKINA: IKASTETXEA ETA GAITASUNEN GARAPENA

Ikastetxeari dagokio:

oinarrizko gaitasunen garapena eragitea, **ikaskuntza esanguratsuaren eta garrantzitsuaren** bidez.

Gaitasun-ekintza zera da: bere konplexutasunagatik, dauden baliabideak modu integratuan abiaraztea eskatzen duten **arazo-egoerak ebaztea**. Adierazpenezko, prozedurazko eta jarrerazko **edukiak ezinbesteko baliabideak dira** arazo-egoerak konpontzeko.

Ikasle bakoitza bere ikaskuntzaren subjektu aktiboa da.

Ezagutzaren bilaketa-, ikerketa-, esperimentazio-, hausnarketa-, aplikazio- eta komunikazio-prozesuak **gauzatu behar ditu**, bere pentsamendu-eskemak eraikitzeko helburuarekin.

beharrezkoa da **ardatza egoera errealetan duten eta ezagutza eguneroko arazo garrantzitsuekin lotzen duten jarduerak proposatzea**.

Zereginak benetakoak izango dira errealtate sozialarekin lotzen badira; horretarako litekeena da eskolak antolaketa malgua eta sormenezkoa eduki behar izatea.

Erronka didaktikoa kulturaren bizipena esanguratsu bihurtuko duten ikaskuntza-testuinguruak prestatzean datza. Horregatik, ikaskuntza-mota garrantzitsuena **errealitatea begiratzeko eta hartan esku hartzeko askotariko moduak garatzea da**.

Berdinen arteko lankidetzan oso estrategia didaktiko baliagarria da **gaitasunen osagai kognitiboak eta emozioei eta jarrerai dagozkienak garatzeko**.

Taldea aberasteko estrategia da, barne hartzen dituelako entzutea, elkarriketa, desadostasuna, elkarrenganako errespetua, eta taldearen onura lortzeko parte-hartzaile bakoitzaren ezaugarri onenak emateko aukera.

Ikasleen ebaluazioa funtsean **prestakuntzako da**. Ikasle bakoitzari, zer eta nola ari den ikasten jakinarazi eta hausnarrarazi behar dio, bai eta etorkizunean nola egin behar duen jakiteko laguntza eman ere.

Ebaluazioak **adierazi behar du ikasle bakoitza nola ari den garatzen** bizitzan modu autonomoagoan eta eraginkorragoan jardutea ahalbidetzen dioten **gaitasunak**. Ebaluazioa **ikaskuntzarako tresna eta aukera da, aldi berean**.

Irakasleen zeregina ikasleen ikaskuntza tutorizatzea da.

Ikasle bakoitzaren **ikasketa-prozesuak diseinatu, planifikatu, antolatu, suspertu, lagundu, ebaluatu eta bideratu** behar ditu, baina giro atsegin batean, hots, ikasleak probak egiteko, huts egiteko, eta beren ezagutza berriz elikatzeko eta eraikitzeko aske eta seguru sentituko diren giroan.

